

anaitasuna

1976.eko Ekainaren 1eko
318 zenbakia 25 Pta



kulturaren
usoa
hemen zaude
erririk

EUSKAL HERRIKO ETA ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

José de Ezpeleta, S. A.

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

BILBON

Oficina central
Príncipe, 5
Tlf: 4230930

ETXEBARRIN

Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5
Edificio Saga
Tlfs: 4493143 - 4495058

BALMASEDAN

Correría, 47
Tlf: 6800604

ZARAUTZEN

Polígono Industrial, s/n
Tlfs: 841013 - 841906

GASTEIZEN

Urartea, 12
Polígono Industrial Aligobeo.
Tlfs: 243850 - 54

BILBOKO ERAKUSKETA

Buenos Aires, 1 - bajo.
(Sotano Aviaco)
Tlf: 4219811



Literatur fitza
irten berriak

NOVEDADES

- Vasconia y su destino. Tomo II: Los Vascos ayer y hoy, (2 volúmenes 1.300 ptas.). José Miguel Azaola.
- Escritos Socialistas. Unamuno.
- La Música Vasca. Arana Martija.
- El Nacionalismo Vasco. Beltza.
- Sustraietau. A. Elizegi.
- El Museo de San Telmo.

GALERIA DEL LIBRO

LIBURUDENDA EUSKAL LIBURUAK
Ercilla, 35 | tel. 443 23 99 - BILBO 11

AURKIBIDEA

3. EDITORIALA
4. TANTAKA
5. Euskal Farenheit 1976
6. C.F.D.T. —
E.L.A.-S.T.V.kin
7. Michelingo greba maitu?
8. Langile batzordeak
H.E.H.an
10. Aresti bizi dugu
11. Donostia: Antiguoa
Hauzotegia.
- 12.etik 15.era. Lejoako
Zientzilaria euskara-
ren alde.
16. Hamabostaldiari agur
esanez.
17. Noiz euskara Athle-
tic-en?
- 18.etik 20.era. USAk Con-
corderi Stop!
- 22-23. Elkar ikuska.
- 24-25. Udako Euskal Ikas-
taroak.
26. S. Soziala. Langileen
ardura.
27. Hezkuntza. Txiki
handiak
- 28-29. Erljioa. Postaz eto-
rria
30. Petroliountziak beti
arriskugarri.
Bergarako Udaletxez
eta Foruak.
Euskara eta Irakas-
le-ikasleak.
31. Liburuak. Liburu egu-
na.
- 32-33. HIZKUNTZA
34. Zapaburu birbiztua.

Maketapena: Fernando
eta Zumalabe
Marrazkiak: Fernando eta
Olariaga
Moldiztegia:
Elexpuru Hnos. S.A.
San Martin, 153
Zamudio



“SU GARBITZAILEA” ETA KULTURA

Era guztietako diktadura guztien indarrak kulturaren kontra jotzen du beti. Benetako kulturak begiak ireki eta buruak argitzen dituzenez gero, itsu-herri baten gidariek ez dute holakorik nahi.

Eskribuak ditugu, noski, eguneroko kulturaren iturri garrantzitsuetakoak, bai liburu eta bai aldizkari gisa agertzen zaizkigunak. Iturri hauen bidez pertsonak ba daki non bizi den, bere bizi-giroa nolakoa den bai eta gezurrak edo erdigezurak non eskutatzen diren ere, berak oinharritzat hartzen dituztenak nabaritzen.

Euskal Herrian eta beronen mugetatik kanpoan azaltzen diren gaurko arazo batzuk honetaz argia egiten digute: Liburudenda, aldizkari kazetari eta liburu-saltzaileen kontra beren grina, su eta harrikadak botatzen dituztenek bere “kultura”ren indar bakarra erakusten digute: indarkeria hutsa. Egia eta argiaren aurrean beldur izaten dira. Urte luzetan “cultura” beren eskuetan eduki dutenek ba dakusate gaur ez dutela bide horretatik ezer lortu, “cultura”horren aurka erreakzio sakon bat sortera tea ez baldin bada.

Orain dela urte asko “Argia eta takigrafoak” behar zirela esan zuen gizonak egia haundi bat esan zuen. Argiaren kontra jotzen dutenak nortzu diren ikusteko eta heraien izen, deitura eta eginak ongi eta arin eskribuz ezaguterazteko. Bai liburuetan eta bai aldizkarietan ere, su eta harri pila guztien gainetik.

GURE AZALA: Ale honetako azalak dakarren sinbolismoak ez du adierazpenik behar, gure ustez. “Su garbitzailea” daraman eskua ezagun zaharra dugu eta libreki dabil gure herrian. Noiz arte? Epe hori laburtzea gure eskuetan dago.



EUSKALDUNEN BOZA BARTZELONAN.

Maiatzaren 10ean, Centre de Cultura Catalana-k eraturik, katalan kulturaren asteari bukaera emateko, Galiziako eta Euskal Herriko ordezkari batzu mintzatu ziren Bartzelonako unibertsitatean. Aretoa, hirur mila lagun inguruz bete, katalan, galiziar eta euskal bandera haundiez horniturik zegoen, eta Lejoan ez bezala, ez zen inor etorri haik kentzera.

Euskal Herriko Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako profesionalarteko elkarteen ordezkari batzu izan ziren deituak, han gure Herriak pairatzen duen kultur, sozial eta politik egoera salhatuz.

DOSSIER BAT EUSKALTZAINDIRAKO.

Euskaltzaindiko liburutegirako dossier bat eskaini zaio ikastolen problematikari buruz. Tomo lodi bat da, parte bitan banatua, eta dena dokumentu orijinalaz osatua. Lehen partean, Deustuko Ikastolako gertakarien dokumentazioa dago, eta bigarrenean beste ikastola batzuetatik jasoa.

Horrela, ikastolen problematika eta euskara batuaren inguruan sortu diren burrukak aztertu nahi dituzten inbestigatzaileek lehen eskuko dokumentazioa kontsultatu dezakete.

Xabier Gereño.

ARBITRARITATEA.

Orain dela egun gutti Bilboko kaleetako ormetan mural batzu ezarri zituzten beren hitz bakarra "amnistia" zela. Beraz, amnistiaren aldekoak.


Baina horra non lau egun beranduago poliziak eta bonberoak elkarrekin kentzen aritu izan diren. Lau egun iraun dituzte amnistiaren aldeko muralok, eta zortzi hilabete pasatuak daude NO INDULTO esaten dutenak. Beraz, espetxeratuen alde publikoki agertzea bekatua dirudi, eta aurka agertzea birtute. Eta jendeak geldetzen du, eta ez arrazoi faltaz, ea zer den hori, justizia, libertatea ala arbitraritatea.

HERIOTZE MINGARRI BAT.

Dorotea Perez de Oxinalde andrea Lekeition hil da 91 urte zituela. Gure dolumin sentikorrenak haren seme Santiago Brouard medikuari (ANATASUNAKO Ekonomi Kontseiluko lankide) eta haren familia osoari.

DERIOKO HAURRAK PROTESTAKA.

Maiatzaren 15ean Derioko umeek herri bereko hauzokideen elkartekokin bat eginik, protesta bat eratu zuten automobil istripuen kontra. Derioko herriaren erditik kaminoa doa eta, hori dela eta, ibilgailuak oso abiada handiz pasatzen dira handik. Automobilistei honelako paper bana, euskaraz eta erdaraz, eman zieten umeek.



MONTEJURRA.

Kristo Erregearen gerrilleroak egindako sarraskia dela-ta, Iruineko Arzobispaduak agiri bat zabaldu du (ikus ZERUKO ARGIA, maiatzak 23). Neurritz idatzia, argia eta zuzena. Eta Euskal Herrian "dauden" (hemen ere ezin esan desakegu Euskal Herriko "diren") apezpikuak, zer?. Oraingoa ere isilune pasibo mingarri batetan geratu dira. Baina gu ezin gaitezke isilik egon, berri ere galdetzen diogu Eliza Ofizialari: Noizko Euskal Konferentzi Episkopala?. Noizko Iruineko Arzobispadua Euskal Herri osorako?. Denbora aurrera doa eta era honetan irautea "adar jotze" luzeegia iruditzen zaigu.

Xabier Gereño.

MILIOI BAT EUSKALTZAINDIRAKO.

Lan Kide Aurrezkiak (Caja Laboralek) milioi bat pezeta Euskaltzaindiari ematea erabaki du aurrerago laguntza gisa. Aurrezki Kulturatuak berriz ere frogatu digu erabaki ekintza kulturaleri laguntzen lehendakaria dela.

ERIZAINEN KEZKAK.

Euskal Herriko erizainak oso duraturik dabilta aspaldion. Erizaintzarako, orain arte, esutudio berezirik gabe, ospitaleetan zenbait urtetako perientzia izatea eskatu izan zaien ondoren titulu bat eskainiz. Baina, surtun, hori dela eta, zenbait bilaketa egin dituzte euskal erizainek. Dena dela, laur urtetan erien pixak eta laur egunero garbitze hutsarekin deus gabe aurrera daiteke. Erizantza ez erizaintza izan behar, beharrezkoa da unibertsital mailako profesio bat izatea. Estudioek egiten baitute erizaintza hiago ezjakintasanaren peko arlo errepikatuek baino. Erizainen profesional mugimendu hau Estatu osoan irauten du eta Euskal Herrian ez dira azkenik dituzte.

ELHUYAR - 6

Elhuyar aldizkariaren sei urteko zikloa bateratu berria da. Hurrengo denez, Donostiako talde honek ez du esten. Zerbaki honetako hirurogei urte bat horrialdeen artean ba dugu zer den Zorionak talde honi, berari esker, zerbaki tzi gaiak euskaraz irakurtzeko aukera baitugu.



EUS KAL FAH REN HEIT 76

*liburuak
sutara*

Liburu Saltzaileek eta liburu merkatuekin zeri-kusirik dutenek ez dute, ikusten denez, nork defendatu. Beren liburu dendak lehertuak ikusi ondoren, egin dezaketen gauza egokiena... ixiltzea da. Ixiltzea eta, maletak egin ondoren, atzerrira joatea.

Maiatzaren 8an Tolosako "Izaskun" liburu dendan anonimo hau hartu zen:

"Primero hemos volado vuestra librería. Pronto volaremos vuestra casa y mataremos a alguno de vuestra familia si es que no marchais de España antes de quince días. Para el día 20 de Mayo teneis que marcharos de España o de lo contrario ya sabeis lo que os espera. Esto lo hacemos extensivo al presidente del gremio de librerías de Gipúzcoa.


Este hijo de la gran puta se acordará nuestro si es que no se marcha de España para la misma fecha. Canallas separatistas, tomad nota de esto: nuestros muertos serán vengados. No saldréis vivos de esta. Batallon vasco-español. Comando "Victor Legorburu". ¡Arriba España!

Liburu dendan lehertu zen bonbak hirurehun mila pezetako kalteak egin zituen. Hau ikusiz Gipuzkoako liburu-saltzaile talde batek, bere lehendakariarekin, probintzia honetako gobernadorearekin elkarrizketa bat izan zuen. Handik egun batzutura beste bi liburutegik—Donosti eta Lagun—beste mehatxuak jasotzen dituzte eta Izaskun liburudendako jabea eta liburu-saltzaileen lehendakaria hiltzeko mehatxuak hartu ere bai. Maiatzaren 18.ean harri batek Lagun Liburu dendaren erakusleihoko kristala hausten du.

Erregeak indarkeria hauk ezagutu ditzan, liburu-saltzaileek Erregearekin elkarrizketa bat eskatu dute eta Gipuzkoako Gobernadoreari Hondarrabian, datozen 5. eta 6.an, liburu azoka bat gertutzeko baimena eskatzen zaio, "Izaskun" liburudendarentzat dirua biltzeko. Lerro hauk idazteko orduan oraindik eskakizun honek ez du erantzunik izan.

EUSKAL HERRIAN

C.F.D.T



E.L.A.-S.T.V. KIN

Apirilaren 24an Donostian egin zèn CFDTean, beronen ordezkari batzuk kazetaurreko elkarrizketa bat eman zuten.

CFDT aldetik hiru ordezkari: Albert Mercier, (Metaleko Federazioaren Idazkari jeneral laguntzaila), Noël Mandray (Kimikako Federazio Batuaren Idazkari nazionala) eta Pierre Evain (Internazional arloko Idazkari Konfederala).

Han zen, baita ere, ELAko Idazkari Nagusia den J.M. Leunda, militante batzurekin batera. Prentsa aldetik errepresentazio ugaria egon zen. Espainiako, gehienak eta Zeruko Argia, Anaitasuna, Donostiako eta Loiolako Herri Irratiak eta Punto y Hora ere bai. Bestalde, irten berria den katalan egunkaria ere: Avui.

Hasiera emateko, ELAri egin dioten ikustaldiaren arrazoiak ematen hasi ziren.

CFDT - ELA sindikatoarekin harreman hertsia goak edukitzera etorri gara. Lehendik ere ba ditugu, baina orain, euskal langileekin hitzegitera eta beren piztiak jasotzera gatoz. Euskal langileen arazoak "tokian bertan" aztertzea etorri gara.

Europako erakunde sindikaletan, hasiera hasieratik, bai ELAk eta CFDTk parte hartu zuten beren sorreran, CES, CIOLS...

Oraingoan ELAekin egotera etorri gara bakarrik. Hala ere Espainiar sindikatoekin ere (UGT eta USO) harreman hertsia ditugu.

Penintsulan demokrazia eta askatasun giro bat lortzera joan behar da. Hori bultzatzen dihardugu, eta horretarako behar den laguntza emango dugu.

KAZETARIA - Nola ikusten duzue batasun sindikalaren arazoa?

CFDT - Gu, Frantziar, sindikal pluralismo batetan bizi gara. Gure nahia, ordea, batasunerako bidera jotzea da, baina, oraindik urrun ikusten dugu. Horretarako ertz asko leundu beharra dago eta arazo handiak daude.

Penintsulan, batasuna eskatzen dutenak ba dira eta joera gogorra dago, baina gu ez gara zuek zer egin behar duzuen esatera etorri, geure esperientzia eta laguntza ematera baino. Era honetan garbi jokatu nahi dugu eta UGT, USO eta ELA sindikatoekin harremanetan gaude.

KAZETARIA - USO eta UGT (CC OO -CEKO eta CONE- bezala) Penintsula osoan jokatzen dute, eta ELA Euskadin mugatzen da. Zer deritzozue arazo honi?

CFDT - ... (barre egin zuten) ... Dena dela, hori zuen arazoa da. Ez dugu biderik ipintzeko asmorik. Zeinok egin behar duzue da.

ELA - (J.M. Leunda) Hori gaur egun, Euskadin, errealitate bat da. Euskadi milan sindikal batasuna proposatzen dugu. Estatu mailan proposatzea utopia da. Batasun horretarako arazo asko dago, baina, lortu behar dugu. UGTekin harremanetan gaude; laster euskal eta espainiar mugimendu sindikalekin izango ditugu (LAK, LAB, eta CONE, CEKO, ORT...) aurrea eramateko.

Horretarako, ELAk kondizio bat ipiniko luke: euskal sindikato nazional bat eratzea.

KAZETARIA - Bizkaia mailan COS (Coordinadora Obrera Sindical) sortu da. Zer arrazoi izan duzue hor parterik ez hartzeko, eta nola ikusten duzue sortu berria den Koordinadora hori?

ELA - (militante bat) Guk CES mailan planteatzen dugu koordinaketa. CONE ez dago CESen eta bestalde, CONE ez da sindikatoa. CEKO ere ez dago COSen. Sindikal batasuna proposatzen dugu, baina ez COS mailan. COS koordinadora bat da, soilik.

KAZETARIA - Sindikatoak eta Alderdiak. Sindikatoaren autonomia. Arazo zorrotza da, noski. ELA nola dago arlo honetan?

ELA - (J.M. Leunda) Bigarren Errepublika garaian garbi dago PNVekin zituen harremanak. Gaur ez dago egoera horretan. Prozesu baten bitartez autonomia bat hartzera iritsi da. Horren ezagupiderik azkenetakoa aurtengo Aberri Eguna dela eta, agertu da garbi. PNVk ezetza eman zuen. ELAk baietza. Dena dela, ez da oraingo gauza; lehendik zuen autonomia hori.

ELAekin jarraitzea merezi zuela, zioen jendeak, eta horregatik, berarekin bereziki prentsaurreko bat egitea beste batetan, oraingoan CFDTkin hitzegitea aprobetxatu behar zelako.

Prentsaurreko bat ematea pentsatua duela ELAk, zioen Leundak eta laster egitekotan zirela, gainera.

Beste galdera bat egon zen azkenik.

KAZETARIA-Egun hauetan Poniatowsky Fraga ministroarekin egon da. Horrek, Estatu biko politzien arteko loturak gehiagotu ditu. Gertaera honek ondorio latza izan du, errefergiatu politikoentzat bereziki. CFDTk zer postura hartu du?

CFDT - Berehala aurka irten ginen gogor. Politika hau emigranteentzat ere oso gogorra eta etsipengarria izan da. Ez da oraingoa. Langile klasea, Frantziar, genero eta zapalduagoa da. Horregatik, beste nazioetako sindikatoekin harremanetan gaude, denon artean mundu hobe eta libreago bat egin dezagun.

ELAko Federazio askorekin egon dira, Euskal Herri osoan (Hegoaldeko partean): Irakaskuntza, Kimika, Etxagintza, Egurra, Metala, Grafikagintza eta Banka.

CFDTren ikustaldiak ELAren proiektio internazionala adierazten du, mundu guztiko langileriarekin batera eman behar duen burruka seinatuz.

Ongarria deritzogu, benetan, ELAk daraman bideari. Indartzea eta zabaltzea du orain, bere eginkizuna. Maila guztieta-ko euskal instituzioak sendotu behar ditugu, gureak baitira eta ELAren lana sindikalgintzan legoke.

J. L.



MICHELINGO GREBA AMAITU?



Beharbada lerro hauk irakurleak hartzen dituenerako, Lasarteko Michelingo langileak lanean hasiak dirateke. Langileen ordezkari zenbaitek horixe eman digu aditzera. Baina ez gauza segurik.

Hiru hilabete ondo paseak daramatza greba honek. Hiru hilabete luzeak. Gorabeheretz ongi hornituak.

Datorren zenbakian greba honen inguruan azterketa bat egiteko asmorik ba dugu, zer azterturik eta zer ikasirik franko dagoelakoan.

Lasartera joaten bazara, sarreran bertan, hainbeste jende ikusiko duzu, gizonak, andreak, umeak, iladan zain daudela, askotan berrogeitamar pertsona baino gehiago luzatzen den errenka batetan. Michelingo langileak eta haien etxeakoak erranka horretan egoten dira solairu batetik banatzen zaien laguntasun apurraren zain.

Ehun egun irauten du Michelingo langileen lanezak, entpresaren gogorkeriagatik. Langileek aukeratu zituzten ordezkariak, haien eskubideak defendatzeko oso ondo egin zuten lana, eta, hori, askotan gertatzen den bezala, ez zaio askorik gustatu entpresari; eta ordezkari horik erditik kendu nahi izan ditu. Entpresari langile banaka eta indargabe batzurekin tratu egitea, komeni zaio, berriz interesatzen zaiona inposatzeko. Baina langileek ondo ulertu zuten, entpresak haien ordezkarien kontra jokatzeko bazuen, langile bakoitzaren kalterako izango zela, haien ordezkari jatorrak kentzen bazaizkie, umezurtz gelditzen direla; eta horregatik langile guztiak tinko daude haien ordezkariekin. Jokabide zintzo eta egokiena, ordezkariekin alde batera langile guztiak hiru hilabete baino gehiago iraun dute lan eta soldatarik gabe, hestutasun gorritan; denen eskubide osoak defendatzeko. Miresgarria eta aipagarria Michelingo langileek egin dituzten sakrifizioak, haien eskubideak zapalduta ez ikusteko, hiru hilabete luze eta penagarri hauetan.

Ez da egunero ikusten halako prestasunik eta ahalmenik langileen eskubideak defendatzen.

Baina azkenean, errealitate gogorra agertu zen. Gaur egunean dirurik gabe ezin liteke bizi, dirua behar da jatekoa, edatekoa eta beste gauzak erosteko. Eta hauxe zen jabearen harma bakarra, langileen eskabideak ez onhartzeko. Diruak irabaziko zuen explotadoreentzat beste burruka bat.

Michelingo langileek dirurik ez daukate, baina bai zerbait baliotsuagorik. Diru eza haiek zuhurtasun eta kemenarekin betetzen dute. Gainera ba zekiten haien burruka Herriaren sustraietan sartua zela eta Herriak lagunduko ziela. Ezin genezake esan, eskaini zaien laguntasuna ugari izan denik, Herriaren erantzuna askoz handia eta zabalagoa izan beharko baitzen. Dena dela, janari, jantzi eta dirua batu da eta langileen komisio batek banatzen du ahal den guztia. Horretarako solairu batetan, Lasarteko sarreran, biltzen dituzte hartu dituzten opari guztiak. Eta han egoten dira Michelingo langileak errenka zain; ez dira pobreak, ez dira eskaleak, beren eskubideak defendatzen dituzte nortasuna eta duintasun osoarekin. Herriaren laguntasuna merezi dute eta ezin dugu diruaren kalteagatik burruka zintzo eta jator hau galtzen utzi. Denok eman behar diegu ahal duguna. Eskaini iezaiezu zure laguntasuna. Denon artean burruka hau irabazi behar dugu.

EUSKAL HERRIAN

LANGILE BATZORDEAK, GAUR, (HEGO) EUSKAL HERRIAN

Apirileko azken igandean, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 2.500etik 3000ra langile bildu ziren Durangoko Jesuiten Ikastetxean, arrazoiak: CECO (Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras) barnean koordinatzen diren Langile Batzordeen (CCOO) Lehenengo Asanblada egitea izan zen. Biltzar honetara kazetari batzu, Euskal Herrian mugitzen diren beste sindikal erakundeak eta Euskal Herritik at dauden Langile Batzordeetako arduradun batzu ere izan ziren deituak.

Biltzarra, euskaraz egindako sarrera batekin hasi zen eta ondoren, sarrera hori erdaraz egiten zebiltzala, Goardia Zibilak sartu ziren langile guztiak kaleratuz eta Asanbladaren arduradun egin ziren CECOko hiru ordezkari eta Madriletik etortako CCOOetako langile bat espeteratuz.

Beraz, biltzarraren iraupena oso laburra izan zen; ordu laurden batera ere ez zen heldu.

Biltzar honetan irakurtzeko ziren ponentzien arteko bat, Langile Batzordeen batasunari buruzkoa zen; zeren Euskal Herrian Langile Batzordeak zatiturik daude eta bi erakunde desberdinetan biltzen dira: lehen aipatutako CECO eta CONE (Comisión Obrera Nacional de Euskadi).

Zatiketa hau ez da gaurkoa: jadanik 1973, urteko Ekainean, Gipuzkoan egindako biltzarre batetan, eman zen lehenengo pausua, hainbat Langile Batzorde kanpoan utziaz. Gero, 1974. urteko Irailean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Langile Batzorde batzuk egindako biltzarre batetan CONE-sortu zuten, kanpoan utziz Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat Langile Batzorde eta Nafarroako Langile Batzorde guztiak.

Kanpoan gelditu ziren Gipuzkoa eta Nafarroako Langile Batzordeek, batasunerantz jo nahirik, CONEra integratzeko gogoak erakutsi zuten, baina ez ziran onhartuak izan. Hara hemen honi buruz zer dion CECOren agerpen batek ("Langile Batzordeen Batasuna"): "...pero sus peticiones (Gipuzkoa eta Nafarroako Langile Batzordeenak) son rechazadas sistemáticamente a la vez que tratan (CONEkoek), por todos los medios, de separar a las Comisiones Obreras de Navarra del resto de las Comisiones hermanas de Euskadi afirmando que Navarra no forma parte de Euskadi".

Hortik aparte, 1974.eko udazkeneko grebak zirela eta, zatiketa hau haundiagoa egin zen, zeren CONEkoek burruka horien gelditzearen alde zeuden, kargu legalak Greba Orokorra konbokatuz arte;

baina CONEtik at gelditu ziren Langile Batzordeetakoek, alderantziz, burruka horien zabalkunde eta koordinaketaren aldekoak ziren.

Gauzak honela, CONEtik at gelditu ziren Langile Batzordeetakoek, erakunde errepresentatiboago eta Euskal Herrian zeuden Langile Batzorde guztiei irekiago zegokeen baten beharrezina ikusi zuten eta hola, 1974.eko hazilean, CECO sortu zuten.

Ba dauzkagu, ba, Langile Batzordeak zatituta. Eta hau, Euskal Herrian bakarrik gertatzen da, Estatuko beste lurraldeetan eta bai Estatu mailan Langile Batzorde guztiak erakunde bakar baten biltzen baitira.

Benetako harrigarria dena zera da: zatiketa hau, sindikalismo unitario baten hazia izan nahi duen erakunde batetan gertatzea. Langile Batzordeak sortu baziren, arrazoirik garrantzitsuena, ideologia askotako langileak erakunde bakar baten barruan biltzearen beharizanagatik izan zen, langileen burrukak indar haundiago batekin aurrera ateratzeko, hain zuzen. Zatiketa honek buruhauste asko sortzen ditu: Bizkaian sortu den COSen (Coordinadora de Organizaciones Sindicales) biltzen diren sindikal erakundeen artean, Langile Batzordeak daude, UGTrekin eta USOrekin. Baina Langile Batzorde horiek, CONE barruan koordinatzen direnak dira; horregaitik, CECO barruan koordinatzen diren Langile Batzordeak ere, sarrera eskatu dute COSera... Baina COSek ez du onhartzen bere barnean Langile Batzordeen errepresentazio bat baizik eta CONEkoek eta CECOkoek konpondu beharko dute nola egingo den errepresentazio hori.

Bestalde, ba dirudi bai CECO eta CONEkoen artean ba dagoela kontzidentzia bat puntu askotan Langile Batzordeeri buruz, hauen objektiboeri buruz, sindikalismoari buruz, etab.

Baina, zergatik ez dira batzen erakunde biak? Arrazoirik garrantzitsuena, ba dirudi (eta hau erakunde politikoekin ere gertatzen da) alternatiba arazo bat dela: Nafarroa, Euskal Herria ote da? Honi buruz, CECOko ordezkari batek honela esan du oraintsu: "Nafarroako Langile Batzordeak ezin argiagoak izan dira puntu honetan: Nafarrak Euskal Herriko beste Langile Batzordeekin CECO barruan daude!"

J.J. Arrizabalaga



BITXIA

ESKU LANETARAKO GAIAK

DOCTOR AREILZA, 55
Telf. 431 72 93
BILBAO - 10



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 9

TXOKO EDER Jatetxea

Menestra izugarriak,
legatz solomo eta
biper bete itzelak!!!

Barrenkale Barrena, 6
Bilbo Zaharra

eraikuntza metalikoak.

HONDAR, s.a.



GALDARAGINTZA

Altzairu, aluminio eta altzairu oxidagaitzezko galdaragintza
fina

Kabina eta armairu metalikoak
Material higikorra eta trenbideetarako
Ontziak, galdarak eta autoklabeak
Ura depuratzeko lagungaiak
Autobusetarako osagaiak
Xaflagintza fina, txantiloiak emanik
Labeak, lehortze berogailuak
Trenbideetarako atek

Telefoneak Lantegiak 69 13 56
Bulegoak 69 13 34

Kale Nagusia, 11

IRURA - TOLOSA
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIAN

GABRIEL ARESTI BIZI DUGU



Orain, Ekainaren Sean, lehenbiziko urtea iraganen zaigu Gabrielelek utzi gintuenetik. Bizi zenean hain eztabaidaturiko gizona zena, egun, hilhobi ondoko trankiltasunean, bere lan eta obra eskergaitzaren merituak publikoki onhartuak dakuskike. Kultur talde batek haren izena darama eta Euskal geographia osoan errepikatzen dira urtean zehar haren pertsona eta lanari buruzko hitzaldiak. Nemo est propheta in terra sua haren bukaera aldatzeko gogoia datorkit, in vita sua hobe; zeren tristea da, benetan, kritikekin batera txaloak ere ongi mereziak zituen gizon batek, horik jasotzeko, beste mundura joan beharra.

Ba dut etxean Euskal Harria-ren ale bat, Gabrielelek berak bere bertso batez eskainia. Honela dio: "Lagun Xabier Kintana /hator bizkor enegana/ Euskal Herriak emanen dauku/ ereinotz koroa bana". Ezkertzekoa dut, noski, Arestik horrekin egiten zidan ohorea, baina beldur izatekoa da haren nahia, neronen balioei dagokienez behintzat, ez ote den hain errez beteko. Eta hark bezala, gloriatz gozatzeko, harrengana hemendik joan behar badut,

sinetsiezadazue ez dudala holako erramu bonetetarako gogo handirik oraingoz. Gabrielelek, ordea, bai, ereinotz koroa hori ongi merezi zuen, eta berak, gainera, oniegi zekien. Lastimagarriagoa, horregatik, bizi zelarik ez ikustea. Baina Arestik bere buruagan fedea zeukan, eta etorkizunak ezagutza publiko hori ez ziola ukatuko sinesten zuen.

Gogoan daukat. Behin, Baionan zehar biok genbitzala —zenbat zor dio euskararen batasunak Gabrieli!— Augustin Xahoren kaletik pasatzean, honela ezan zidan irribarrez: —Begira Xabier, idatzi nuena idatzi arren, kale hau ikustean ba daukat oraindik itxaropenik. Xaho ezkertiar jainkogabe hari euskaldunek kale bat ukatu ez badiot, tira, tira!...ba liteke besteok ere antzeko zoria izatea.

Baina Arestik, egun batez Baionan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruinean bere izenaz kale bana ukanen badu ere, gudan irauteko ez du kalerik behar. Gizonak ba doaz, baina beraien obrak hor geratzen dira. Eta Gabriel Arestiren presentzia geure artean dugu egunero, haren poemak, kantuz —biba

hi, Natxo!— herriak bereganatuz, entzutean, Bilboko bandera gorri eta beltzeak ikustean, hoxaxe baitiosku legiak garelako epelegiak. Eta euskal foruak gogoratzean, eta egun-egunean, beti afanean dabilen gizona —edozein— ikustean, bere aitaren etxea, bere emaztea eta haurrak —Meli, Nerea, Andere, Bihotz, Gurea— maitatzen dituen edonorekin topo egitean.

Boz berria utzi digu euskaldunoi Aresti harginak, eta aldizka mailuz, aldizka biolaz, mefodiaka, landu zuen Herri-Harri hau, bera hemendik pasatu zenetik, jadanik ez da lehengoa. Bilboko euskal poeta, honez gero balio nazional bat dugu euskaldun guztioi geure historiaren kenezineko zati bat.

Ez dezagun, ordea, gizona mythifikatu, berez zeuzkan balio objektiboekin aski eta sobera da eta. Bere oker guztiekin hartu beharra dago, bere lan-kerak ironiatsu eta mingarriaz, bere lantasan eta pauso baldar guztiekin, terribletasun oso harekin, bai, baina hala ere, hemengoa zen eta hementxe dugu, Euskal Herrion, geure artean betiko.

Xabier Kintana.




DONOSTIA

ANTIGUO HAUZATEGIAN ARAZOEK BA DUTE BERE ERREAKZIO BEREZIAK.

Donostiako Antiguu Hauzategia gogor ordaintzen ari da bere abertzaletasuna. Bertan ez dago gaur lasai bizitzerik. Hauzategi honetan bizi diren hogeit mila donostiarrek bere buruen zaintzaile bihurtu behar izan dute. Nahiz eta hauzategian goardia zibilen etxe bi izan, antiguotarrak gauean beren defenditzaile taldeak antolatu dituzte hamar gauean guttienez. Ultraeskuindarrek Antiguu hauzategia bere burruka tokia bezela hartu dute. Antiguon bizi diren jendeak (abertzaleak batzu, ez hainbeste beste batzu) bat egin dira bere hauzategia defendatzeko eta, gutun baten bidez, Donostiako kazetetan beren kezka agertu dituzte, ultraeskuindarren indarkeriak salhatuz. Hitz guttitan hauk izan dira: Alaia eta Echeverria jantokien aurka bonbak bota dituzte, Echeverria jaunaren automobilean beste bonba bat jarriz (ez zen lehertu).

- Antiguotar baten autoa sutan jarri zuten.
- Jakintza ikastolako ikasgeletan sartu eta hondatu egin zituzten. Elizako azpi-gelei su eman su zioten azido edo gasolina bidez.
- Telefonoz antiguotar asko mehatxatuak izan dira sei hilabeteotan. Paperak ere hartu dituzte, mehatxuz eta beren bititokiak utzi behar zituztela esanaz. Kalaan ere batzu aurpegiz mehatxatuak izan dira eta, etxetik kanpora zeudela, antiguotar batzuren etxeetan sartu eta pintadak egin dituzte.
- Hauzategiko gazte batzu ere mehatxatuak izan dira elizako geletara joategaitik. Mehatxuek diotenez "beren emaztegaiak bortxatuak" eta beren familiak ere atakatuak izango dira.
- Apirilean bi dendetako kristalak hautsitak izan ziren, bonbaz lehertuak izango zirela telefonoz esan ondoren.



Azkenez gutunaren sinatzaileek (Antiguu Hauzo Elkarteak, Jakintzak, Parrokiak, Istingorrek eta Peña Taurinak) kalte eta indarkeria hauen egileak publikoki ezagunak eta zigortuak izan daitezela eskatzen dute, terrorismoaren aurka dauden legeez.

Zergatik ote da Antiguu hauzategia indarkeria hauen sufritzailea? Bertan bizi diren donostiarrak gero eta gehiago batu direlako, bai hauzategi arazoak salhatu eta soluzioak aurkitzeko, bai euskal kultura eta hizkuntzaren alde lan egiteko.

Antiguotar jator batek hala agertu zigun Antiguoren gaurko egoera. Joan zen urteko Hazilean Hauzo Elkarte bat hasi zen lanean, Antiguoko elkarte eta klub guziak kontuan hartuz eta guztien indarrak batuz. Gaur egun Hauzo Elkarte honetan larehun bat lagun batu dira eta horrela, indarkeria, hoiaren aurka izan dituzten erreakzioak bikainak izan dira. "Alaia" jatetxea bonbaz lehertuta izan zanean, beste denda guztietan (Antiguu eta Donosti guztikoentzat) diru biltzea egin zen eta jasotako pezetak bi milioi baino gehiago izan ziren. Adibide hau nahiko argigarri dela uste dugu.



Hauzo elkarte barruan aurki ditzakegun lantaldeak hauek ditugu: hirigintza, haurtzaindegia, jubilatuen etxea, kultura, gazteri klub, bizitzaren kalitatea, kirolak, jaiak, aldizkaria (aguro azalduko da), euskara, lan poltsa eta Zine klub.

Elkarte barruan egindako paperak euskaraz eta erdaraz argitaratzen dira. Lehendakari, bokalak eta abar "paper-arazoagaz" bakarrik jarriak izan dira, astero-astero, bilera batez, erabakiak demokratikoki hartuak baitira. Beste hauzo elkarteekin egiten diren bileretara, adibidez, sozioen, arteko edozein bidalduta gerta daiteke, ez Lehendakaria edo Directibakobat bakarrik.

Antiguotarrak gaur aurrera jo nahi duen proiektua (beste batzuren artean, noski) hauxe da: Miramar Jauregia ez hotel edo dirujoko etxe bat bihurtzea, baizik eta beren lur eta gela haundiak herri guztiarentzat izatea, beren gelak hauzo elkartei utziz edo ta donostiarren kultur eta beste moeta guztietako beharrei opatuz.

Hitz laburretan: Antiguoko euskaldunak eta euskaltzaleak hauzo arazoak beren eskutan hartu dituzte eta euskal kutsuz bete dituzte. Zeinbat abertzalek adibide honi jarraitu beharko genioke, ez direnei beren eskutan hartu dutelako hainbeste kritika egin ordez!

LEJOAKO ZIENTZILARIAK EUSKARAREN ALDE



Lejoa Bilbo alboan dago. Oraintsu arte guztiz euskalduna izan da; baserriz betea, euskara samurra entzun zitekeen bertako lurretan. Egun, ordea, demografi "boom"-arekin batera, erdaldunduz doa.

Duela bostpasei urte, Unibertsitate berria eraiki zen bertan, bi fakultate hauez hornitua: Zientzi eta Medikuntz Fakultateak. Toki guztietako irakasle eta ikasleak bildu dira, Unibertsitate honetako orma zurisken artean.

Baina, zer pentsatzen dute euskararen erabilkuntzari buruz?.


Hurrengo lerroetan Zientzi Fakultateko EKT-k eginiko inkesta baten erresultatuak aurkezten dira, bi artikulutan. Batean ikasleen erantzunak eta bestean irakasleenak.


LEJOAKO ZIENTZI FAKULTATEAN EGINIKO
INKESTA.

EUSKARA UNIBERTSITATEAN

Eginiko galderak, ondoko hauk izan ziren:

- 1.- Euskara ba al dakizu?
 - a) Bai
 - Mintzatzen soilik
 - Irakurtzen eta idazten
 - b) Erdixka
 - Ikasten ari zara?
 - c) Ez
 - Ikasi nahi al zenuke?.
- 2.- Unibertsitate honetan, euskara beharrezkoa ikusten al duzu?.
- 3.- Unibertsitateko ordu-programaketan euskara ikas-teko orduak egonen balira, ikasiko al zenuke?.
- 4.- Euskal kultura hedatzeko eta bultzatzeko Unibertsitateak organismo egoki bat sortu behar duela usfe duzu?.





EUSKARA ZIENTZI FAKULTATEKO IKASLEEN ARTEAN.

Ezaguna da aurtengo ikasturtearen haseratik Euskal Unibertsitatearen alde sortu den mugimendua. Egia esan, jende askori mesedegarri gertatu zaiola uste dugu, lozorrotik esnatzeko besterik izan ez bada ere.

Ba da, ordea, eginiko eranskailuek aipatu ez duten errealitate sakon bat —azpi azpikoa— ikertze premiarik. Eta hauxe da:

Zenbat ikaslek dakite euskaraz? Zenbat dira ikasi nahi dutenak? Ala, euskarazko ez den "Euskal Unibertsitate" bat nahi ote dugu?

Lejoako Zientzi Fakultatean, maiatzaren hasieran, bertako EKT-k (Euskal Kultur Taldeak) eta beste zenbait lagunek euskarari buruzko inkesta bat antolatu dugu. Inkesta hau Fakultateko irakasle eta ikasleen artean banatu da.

Gehiengoak erantzun du. Hona hemen 1.166 ikasleren eritziak (erantzun dutenenak hain zuzen)

- Euskaraz ba dakite:
 - Mintzatzen soilik: 66 (5,66 o/o)
 - Irakurtzen eta idazten: 56 (4,88 o/o)
 - Erdixka: 160 (13,72 o/o)
- Euskara ikasten ari dira: 201 (17,22 o/o)
- Euskaraz ez dakite: 780 (66,89 o/o)
- Ikasi nahi dute: 733 (63,86 o/o)
- Unibertsitate honetan euskara beharrezkoa ikusten al duzu?
 - Bai: 815 (69,89 o/o)

Ez: 336 (28,81 o/o)

—Unibertsitateko ordu-programaketan euskara ikasteko orduak egonen balira, ikasiko al zenuke?

Bai: 972 (83,36 o/o)

Ez: 172 (14,75 o/o)

—Euskal kultura hedatzeko eta bultzatzeko, Unibertsitateak organismo egoki bat sortu behar duela uste duzu?

Bai: 1.094 (93,82 o/o)

Ez: 42 (3,60 o/o)

Fakultatean 1.800 ikasle inguru izanik, eta asko ez direla egunero klasera joaten kontutan harturik, erantzunak ugari bildu dira. Eta guztiz argigarriak.

Ondorioak errazki atera daitezke. Ez dago inkestari asko begiratu beharrik, euskaraz dakigunok zein urri garen ikusteko. Datorren urtean —makila miragarri bati esker, adibidez— Euskal Unibertsitatea funtzionatzen hasi ahalko balitz, oraingo ikasleotarik 4,88 o/o baino ez ginateke bertako ikasleak, horik baizik ez baikaude alfabetaturik. Ez zegoen ikastolarik, gaurko unibertsitariok haur ginenean. Honekin zera esan nahi dugu, euskarazko Unibertsitatearen etorkizuna eskailera luze baten buruan dagoela, eta bertara heltzeko aurreko mailetatik ere pasatu behar dela.

Bestalde, gehiengoak garbi dakusa, euskara irakasteko egokitu behar diren erakunde eta programaketen premia. Baikor bagara, ikasleen arteko 83,4 o/o euskarazko eskoletara joango lirateke.

EUSKAL HERRIAN

Inkesta.

Baina ikasleen artean inkesta bat egiteko zen, eta beronen mamia ikusirik, irakasleen artean hura banatzea era interesantea izan(en) zatekeela pentsatu zen, Fakultatean diharduten guztien erantzunak batzeko eta konparatzeko. Pentsatu eta egin. Egun batetan, bost sailetan topatu genituen irakasle guztien artean inkesta banatu genuen. Erantzunak hauek izan dira:

| | | |
|---------------------------|----------------|------------------|
| Jasotariko erantzunak: | 109 | |
| 1.-galderari erantzunak: | 109 | |
| a) Euskara dakitenak: | 7 (6,4 o/o) | |
| Idazten eta irakurtzen: | 6 | |
| Mintzatzen | | soilik: |
| b) Erdixa dakitenak: | 6 (5,5 o/o) | |
| c) Ez dakitenak: | 96 (88,1 o/o) | |
| Ikasten ari direnak: | 9 | |
| Ikasten ari ez direnak: | 41 | (1. oharra ikus) |
| Ikasi nahi dutenak: | 62 | |
| Ikasi nahi ez dutenak: | 19 | (1. oharra ikus) |
| 2.- galderari erantzunak: | 104 (95,4 o/o) | |
| Bai: | 59 (54,1 o/o) | |
| Ez: | 45 (41,3 o/o) | (2. oharra ikus) |
| Erantzun gabe: | 5 (4,6 o/o) | |
| 3.-galderari | | erantzunak: |
| Bai: | 68 (62,4 o/o) | |
| Ez: | 33 (30,3 o/o) | |
| Erantzun gabe: | 8 (7,3 o/o) | |
| 4.- galderari erantzunak: | 108 (99,1 o/o) | |
| Bai: | | |
| Ez: | 2 (1,8 o/o) | |
| Erantzun | | gabe: |

1.-Oharra: Erantzunak ez dute orotara 109 sumatzen, dakitenak ez baitaude sarturik, ete beste guztie dakitarik, askok ez baitute erantzunik eman.

2.-Oharra: Galdera hau ez dago argi, ez baita azaltzen "beharrezko" hitzez zer ulertzen den. Erantzun askotan irakasleek argitasun zenbait ematen digute, baietza edi ezetzaren arrazoiak emanik, edo erantzun baino lehen, "beharrezko" hitza nola ulertu duten azalduz. Argitasun gehienak honela bil daitezke:

— bilinguismo progresibo baten alde, Euskal Herriko bilinguismo de facto-an oinharritua.

— Euskara hutsez eginiko irakaskuntzaren aurka: ez guztiek ordea.

Komentarioak.

1.- Euskal irakaslegoaren urritasuna nabari da, eta ez dirudi hemendik denbora laburrera ugalduko denik, zeren, nahiz eta euskara ikasi nahi luketen irakasleak asko izan, ikasten ari direnak oso gutti baitira.

2.- Hirugarren galdera ikasleez pentsaturik egin zen eta erantzunak ikusirik, ondorio hauk atera daitezke:

a) Unibertsitateak ordu programaketan euskarazko eskolak emanen balitu, irakasle asko joanen litzatekeela, eta lehen galderan ikasi nahi dutela erantzun dutenek Unibertsitate barnean bere nahia betetzeko parada ukanen luketeela.

b) Nahiz eta Zientzi Fakultate batetako irakasleak izan euskararen irakaskuntza beharrezkotzat jotzen dutela, eta, programaketan, klaseen eta laborategien artean, euskarazko eskolak ere egon behar direla.

3.- Laugarren galderari eman zaion erantzunak, ez du komentariarik behar. Euskal Departamentu baten premia gorria ikusten da.

Euskal Departamentua.

Departamentu honek ez luke bere burua zuritu behar izaterik. Hasera haseratik lanpetuta egonen litzateke, hainbat urtetako hutsuneak betetzeko. Horrela, beronek antolatuko lituzke Unibertsitate osorako, bai euskarazko ikastaldiak eta hitzaldiak, bai euskal hiztegi zientifiko-tekniko baten prestaketa, bay symposium-ak eta mintegiak eta abar luze bat.

Eta guzti horik, Euskal Herriko beste antolamendu baten laguntzaz eratuko lituzke, Euskaltzaindiaren laguntzaz halebria.

J. Iturbe.






Euskarazko eskoleei buruz oso gutti egin da orain arte. Ihaz alfabetatze ikastaro bat egon zen eta zenbait euskalduntze ikastaro ere bai. Aurten euskal taldeak serioskiago antolatu ditu ikastaroak: "Euskalduntzen" metodoaren hiru liburuak eta Alfabetatzen 1 liburua erabili dira testu gisa. Irakaste pribatu eta amateur honek dituen oztoporik latzenak, ez gelarik, ez dirurik ez eta ordu egokirik ez izatea dira.

Ikusten denez, euskalduntzea hil ala biziko aukera da Euskal irakaskuntza horrek, gainera, ofizialtasuna behar du lortu.

ESKARIA

Beste zenbait Fakultatetan jokatzeko ari diren antzera, ofizialtasuna lortzeko guk ere agintari akademikoetara jo dugu. Horrela, bada, inkestaren erresultatuak erakutsiz eta ikasle askok sinatuz, eskari bat egin diogu Dekano jaunari. Bertan agertzen diren zehaztasunen berri edukitzeko, ikus ezazue nolakoa izan den eskaria.



"Zientzi Fakultateko Dekano Jaunari: Zientzi Fakultateko Euskal Kultur Taldeak, aurtengo maiatzean egin duen inkestaren erresultatuak agertzen dizkizu.

(hemen erresultatuak sartu ditugu) Datu hau kontutan harturik, guztiz premiazkoztat jotzen dugu, Fakultatearen beharrianak konkretuki eta Euskal Herriarenak orokorki bete ahal izateko, ondoko eskabide honi erantzun bat ematea. Hau da, Zientzi Fakultateak "Euskal Kultur Sail" bat sortzea, Euskaltzaindiaren pean. Erakunde honen helburuak hauk lirarteke:

1) Euskarazko klaseak, asignatura ofizial eta aukeragarri bezala, ikasmait guztietan eta eguneroko orduketaren barruan sartzea.

2) Zientzien Irakaskuntzarako gai izan den euskara tekniko mintegien bidez osotzea.

3) Fakultateko agiri ofizial guztiak, nahiz examinetako papeletak, hizkuntza bietan ager daitezzen, itzultzaile ofizial bat izenda dadila.

Eskabideok bete daitezzen, Z.E.K.T. akademik agintariekin batera lan egiteko prest dago"

Eta besterik ez

Lejoako Z.E.K.T.

ZIENTZI FAKULTATEKO IRAKASLEEN ERITZIAK.

Irakasleen aldetiko giroa.

1968.ean Bilboko Unibertsitate Autonomia sortu zen, eta berari eratzeko, aurretik zeudèn Fakultate zaharrei bi berri hauk gehitu zitzaizkien: Ingeñeritza eta Zientzi Fakultateak; azken hau, Fisika, Matematika, Biologia, Geologia eta Kimika saillez osatua. Honelako tamainako Fakultate baterako, irakaslego autoktonoa ez da gauetik goizera eratzen, eta irakasle gehienak Espainiako alde guztietatik erakarriak izan ziren. Gaur, zortzi urte geroago, Lejoan eraikitako edifizio berrietan gaude, irakasleen kopurua betetzera doa, haseran zeudèn

inprobisapenak eta despistek ia galdu egin dira, eta aurten tituludunen laugarren promozioa aterako da.

Berezitasun bezala, Unibertsitate honek duen teknik usaina, Zientzi Fakultateari ere ba dario: ba dirudi, Humanistiko diren ekintza guztiak isilduak edo mespreziatuak direla. Teknikapen honek eragin handiak izan ditu —eta ez onak—, Euskarari eta Euskal Kulturari buruz, batez ere.

Dena dela, eta ikasleen eraginaren kausaz nagusiki, —EKT-ek egin duten lana eskerga da— irakaslegoaren parte bat euskal problematika baten existentziaz jabetu da. Baina hau ez da aski. Pertsonalki eta hizketan ematen zizkigutèn erantzunak zifratan nahi genituen jarri, aurrerantz eraman nahi ditugun ekintzak, zerbait konkretutan oinarritzeko. Eta inkestaren beharriana sortu zen



HAMABOSTALDIARI AGUR ESANEZ

ANAITASUNAren aurreko zenbakian Santutxuko hamabostaldiari buruzko aipamena egin genuen. Orain, epilogo gisa, haren bukaerari buruzko artikulua labur bat eginen dut, ongi merezi baitu.

Azken egintza gehienak haurren eskutan egon ziren. Honela, larunbat arratsaldean, Ikastolako haurrek mimo-antzerki ikusgarri bat antolatu zuten. Herri bati buruzko istorioa, haurrek berek asmatua eta moldatua, eta bertan gaur eguneko umeei pairatzen dituzten problema batzua agertzen zirelarik. Laburki esanik, berdegune eta jostalekuen falta, herrietako bizitza lasaia apurtzera datorren hirigintza desordenatua eta kontrol gabeko industrietan bilakabidea izan ziren, agertu ziren arazoak; hitz batez, Santutxuko arazoak. Eta dena, sei urtetatik hamabi urtetara bitarteko haurrek egina. Zoragarrià!

Jendeak ongi erantzun ziren haur antzezlariei izerdi-nekeei; antzekia jokatu zeneko plaza, gainezka baterik zegoen. Jendea adi adi, haurrak batez ere. Ikusgarria zen, nola bi, hiru, lau urtetako haurrak —bestelako ekitaldietan geldirik ez egon zirenak— guztiz geldirik, adi eta begira zeuden ikustea. Ez da harriztekoa, zeren antzerkia haurrek eta haurrentzat egina baitzen. Zorionak, beraz, hain lan polita eratu duten haurrei, eta, modu berean, Ikastolan lan hori antolatzen lagundu dieten andereño-irakasleei.

SANTUTXUK NAHI EZ DITUEN GAUZAK

Azken eguna eguzki garbi eta indartsuz kaleratu zitzaigun. Haurrez osaturiko dantza taldeek, oskarbiari lagunduz, poliki alaitu zituzten, hauzategiko etxe erraldoien artean dauden zabalune eskasak. Kanta eta dantza edonon, umeen jai eguna aurrera joan zen.

Arratsaldean amaiera eman behar zitzaion hamabostaldiari; eta eman ere, modu bikainez eman zitzaion. Amaitze ekitaldi honetan, erre egin ziren publikoki eta sinbolikoki, geure herrian nahi ez ditugun jokamodu batzua. Horretarako, kartel handi batzua egin ziren, jokamodu horiei buruzko esaldiak adieraziz; eta bertan idatzirik zegoena jendearek erakutsi ondoren, plaza erdian erre egin ziren guztien aurrean. Honela zioten erretako kartelek: "Udal etxe elitista", "Kultur zapalkuntza", "lurren espekulapena", "erakuntzaz beteriko berdeguneak", "Sozial Seguratasuna negozio modura", "engainatu eta lelotu egiten gaituzten informabideak" eta "elebitasun zapaldua". Horik erre ondoren, beste hauek agertu eta aurkeztu ziren jendearen pentsaketarako: "Udal demokratikoa", "kultur etxe publikoak", "kiroldegiak", "berdeguneak", "Sozial Seguratasuna ordaintzen dugunon zerbitzura jarria", "benetan informatuko duten informabideak" eta "elebitasun ofiziala".

Eta amnistia eskatuz eta guztiok batera Agur Jaunak kantatuz, jaialdiari azken ukuitua emanen zion erromeriari eman zitzaion hasera. Zeren lan egiten duenak, jostatze eskubidea baitu!

Urtean zehar santutxutarrok lana egiteari etsiko ez diotelako esperantzaz, har ezazue agur bero bat eta datorren urterarte.

Ramon Garai



NOIZ EUSKARA

ATHLETIC-EN?

Erdi txantxetan hala zion gure lagun batek: "Football elkarteak dira euskaldunok dugun lege-barruko elkarte bakarrak". Eta, gure ustez, hau egia da. Ez da harritzekoa, orduan, gure kirol zelaietara doan ikusleak bere abesti eta garrasietan euskara erabiltzea. Euskara apurrak dira hauk, noski, baina euskara piskanaka agertzen ari zaigu kirol giro hauetan.

Bere kirol zelaietan euskararen berpizkunde hau ikustean, gure football elkarte batzuk beren aldetik euskara sartu dute beren agerpen batzutan: sarrerak euskaraz eta erdaraz idatziak dituzten partidu bakoitzeko kartelak bezela, edo ta beren elkarte-abesti ofiziala euskaraz... Ofizialki euskara onhartu dute, hitz batez, klub hauek.

Eta zer dio Bilboko Athletic gai honetaz? Orain arte, Euskal Herriko klub garrantzikoena izan arren, ez du euskara onhartu. Orain dela egun batzu Bertendona kalera joan ginen, gai honetaz Athletic-ekin hitz egiteko. Bere jereñte denarekin, Zarza jaunarekin, hurrengo elkarriketa izan genuen.

ERABAKIRIK EZ

Zarza jauna: noiz Athletic-ek, gure football elkarte ezagunenak, euskara onhartuko du ofizialki?

Ezin dezakegu jakin. Junta zuzendariaren arazoa da hori. Bilerak batzutan arazo hau agertu da baina ez da ezer erabaki.

Gaur egun edozein elkartek euskarari bere laguntza oia dio eta tristea da Athletic-ek oraindik ez duela ezer egin ikustea.

Bai, bai, hala da. Gure bulegoan hartu izan ditugu gutunak euskararen alde eskakizunak eginez.

Sarreretan euskara erabiltzea, Real Sociedadek egiten duen bezala, lehen pauso bat izan daiteke...

Eskakizun hau irriparre haundi batez hartzen du Jereñte jaunak.

Tamalez, hau egitea oraingoz zaila zaigu.

Zer ba?

Sarrerak edo "billeteje"ak urte askotarako inprimatzen dira.

Eta zenbat urtetarako du Athletic-ek "billeteje" hori erdara hutsean?

Bi urtetarako, guttienez.

Horrek esan nai du euskara ez dugula ikusiko sail honetan bi urte barruan... guttienez.

Hala da, Junta Zuzendariak gai honetaz ez baldin badu erabaki bat hartzen. Hala ere, gure "Athletic" aldizkarian horriren bat euskaraz egitea pentsatu izan dugu noizbait, baina ez dugu erabakirik hartu.

NOIZ ETA NOLA?

Eta zer gertatu bear du Junta zuzendariak erabaki horik har dezan, Zarza jauna?

Noiz eta nola egin jakitea.

Nire ustez "noiz" hori "oraintxe" da eta "nola"... euskaraz.

Bai, noski. Nire ustez zunta Zuzendaria joera horretan dago. Orain egin behar dena erabaki bat hartzea da.

Gure ustez sozio eta ikusle guztiek oso ondo hartuko lukete erabaki hau.



Ez dakit noiz, baina nire ustez noizbait Athletic ere euskara onhartuko du.

Horrela izan bedi, gaurko Athletic-en joera tamalgarrria baitzaigu euskaldunoi.

MEXIKO

Gure elkarrizketa amaitzeko Athletic Mexikora egiten ariko dan ibilaldiaz diogu.

Zergatik honenbeste zailtasun Mexikora joateko?

Nire ustez lehengo urteetako politika arazoengaitik. Aurten "teknika moetak zailtasunengaitik", Federazioak dioenez. Seleksio aldetik, adibidez.

Berak dioen "seleksio" zailtasun hori ez da aldentu eta, hala ere, azkenean baimena eman du.

Bai, horrela gertatu da... Ez dakit... Mexikora helduar-te ez dugu sinetsiko han gaudenik.

Mexikoko Euskal Etxeak sekulako harrera antolatu omen duo Athleticici...

Hala diote, bai.

Harrera hori, noski, euskaldun football elkarte baten-tzat gertatua izango da. Ez al da hau izango hainbeste zailtasunen iturburua?



Atmosferan 18.000 – 35.000 metro bitarteko garaieran, ozonoa ugari dago. Ozono geruza horrek babes-tu egiten gaitu neurri handi batetan ultramore izpien eraginetik.

Hala ere, ba dira ozono hori deuseztera laguntzen duten konposatu edo elementu kimiko batzuek. Concorde edo Tupolev TU 144 eratako hegazkinen erreaktoreen hondakinek eta intsektu-hiltzaileak eta desusaintzaileak aerosoltzeko erabiltzen diren zenbait konposatu kimikok, ozonoaren deuseztearen katalizatzaile gisa jokatzen dute.

Ez ote dugu geure Lur hau defenditzen zaintzen hasteko asmorik?



Amerikarrek ozenki altxatu dute beren ahotsa eta indarra Concorde hegazkinaren aurka. Zeintzu izan dira kontrajartze horren arrazoiak? Jendeari begira eman direnak, hauxek dira: Lurrartze eta lurrutzean zarata handiegia egiten duela, ekologi sistemari kalte handiak egin diezazkiokeela eta estratosferan dagoen ozono geruza deuseztera laguntzen duela. Hauk guztiok arrazoi tekniko-zientifikoak direla esanen nuke, eta ongi daude. Baina, neure buruari azeriki galdetzen diot, arrazoi nagusia frantses-ingelesek merkatal hegazkingintzan aurrea hartu dietela ez ote den, eta gero arrazoi extrazientifiko honi eusteko, bestelako arrazoiaketa modu bat prestatu ez ote duten.

Dena dela, eta gu mundu mailan hegazkingintzaren kontrola, gidaritza eta buruzagitza lortzeko gertatzen ari den burruka honetatik kanpo geratzen garelarik, aztertu eginen dugu ahalik eta zientifikoen eta objektiboen, lehen aipatu dugun problematariko bat: ozonoarena, halegia.

ATMOSFERAK BABESTU EGITEN GAITU

Atmosferak osorik inguratzen du Lurra, eta garrantzi handia du bertako bizitzarentzat. Atmosferako ura eta oxigenoaren garrantziaz gain, esan diezagun, atmosferak eguzki eta izarretatik datozen izpi eta partikulen eraginetik babestu egiten gaituela. Atmosferarik gabe, irradiazio horrek kiskali egiten gintuzke, eta gure bizitza modu hau ez litzaiteke posible izan.

Baina, horrelako gogoetak alde batetara utzirik, izpi horien artean heltzen zaizkigun izpi berezi batzu aipatuko ditugu: Ultramore izpiak.

Ultramore izpiak, geure begiez ikusten ditugun izpiak bezala, uhin elektromagnetikoak dira; baina argi izpiak baino frekuentzia handiagokoak dira, hots, energia handiagokoak. Begiez ez dira ikusten ahal, baina horrek ez du esan nahi garrantzirik ez dutenik. Izatez, ultramore izpiak gure gorputz azalaren beltzarantzearen eragile nagusiak dira. Kimikoki esanik, beltzarantzea erreakzio fotokimiko baten ondorioa baino ez da. Azalpean dauden pigmentu batzuk erreakzionatu egiten dute ultramore izpien eraginpean, eta; erreakzio fotokimiko horren bidez, azala beltz arandu egiten da.

Beltzarantzea —neurri egoki baten barnean gertatzen bada— oso on eta osasungarri da. Hala ere, ez da komeni neurri horretatik gora pasatzea. Eta, modu berean, ez da komeni ultramore izpiak neurritz kanpo hartzea, zeren eta luzetara izpiok mutaketak zor baititzakete zeluletan eta mutaketa hauen azken mailan, azal kantzerrak ere bai.

Izarretatik eta eguzkitik datozen ultramore izpi guztiak gureganaino helduko balira, ezin bizi ahalko ginatke Lurrean. Baina, zorionez, atmosferan dagoen ozono geruzak babestu egiten gaitu ultramore izpien eraginetik. Baten batek ozonoa zer den ez dakielakoan, ozonoa oxigeno molekula tri-




atomikoaren izena dela esanen dugu; beraren sinbologia O da. Eta artikulua sarreran esan dugun bezala, ozono geruza hau 18 - 35 km bitarteko garaieran dago.

OZONOAREN AURKAKO EGINTZAK

Gizona, ordea, kontziente edo inkonzienteki; ozono geruza hori desegiteko bideak ipintzen ari da. Eta desegite bide horik, zenbait konposatu kimiko berezi atmosferan jartzetik datoz. Konposatu kimiko hauen artean, aipamen eta azterketa berezia merezi duten bi daude: nitriko monoxidoa (NO) eta kloroa (Cl₂).

Hauek biok, katalizatzaile gisa jokaturik eta ultramore izpien eraginpean, ozonoa oxigeno biatomikoa bihurtzera laguntzen dute, hots,



delako transformakuntza bizkortzera laguntzen dute.

Eta, zer dela eta agertzen dira atmosferan nitriko monoxidoa eta kloroa? Nitriko monoxidoaren kasuan zenbait iturri desberdin kontsideratu behar dugu. Batetik, dirudienez, aire zabalean egin diren leherketa atomikoetan kantitate handitan sortu da NO delakoa. Eta gero, NO hori ozonoa dagoen atmosfera alderantz difusatu bide da. Dena dela, esanikoa ez da guztiz segurua, eta gainera munduko estatu gehienak aire zabalean eginiko leherketa atomikoen aurkako hitzarmena sinatu dute; beraz ez dugu NO iturri hau kontutan hartuko. Bestetik, hegazkin supertsonikoen erreaktoreetatik jaurtikitzen diren gasen artean, nitriko monoxidoa ere ba da. Eta honetan, CONCORDE hegazkina 16.000 metro inguruko garaieran higitzen dela eduki behar da kontutan, hots, ozono geruzaren muña aldean. Eta gainera, proiektuak aurrerantz egiten badu, etorkizun hurbil batetan hegazkin horik 20.000 metro baino goragotik ibiliko dira, hots, ozono geruza barrutik. Beraz, pentsatzekoa denez, hegazkinok eragin zuzena edukiko dukete ozono geruzaren deuseztaketan. Eta puntu honetan amerikar jakintsuek arrazoi handia dutela esan behar dugu, horrela uste baitugu.

Kloroaren kasuan gertatzen dena, oso desberdina da orde. Itsektu-hiltzaile, desusantzaile eta edertasun produktu batzu, aerosol erara hedatzen dira eguratsean; eta horretarako, gas bultzatzaile baten laguntzaz baliatzen gara.

Gehien erabiltzen diren gas bultzatzaileak CF Cl eta CF Cl formulaz adierazten diren fluorklorometanoak dira. Gas hau poliki poliki estratosferarantz doaz, bitartean ziklo biologikoetan sartu gabe hau da, degradatuak izan gabe. Ozono geruzara helduz, hogeit hamar kilometro inguruko garaieran, disoziatu egiten dira ultramore izpien eraginez, eta disoziatu horretan kloroa aske geratzen da, hau da, lehen esandako erreakzioaren katalizatzaile izateko moduan.

Argi dago, beraz, gas bultzatzaile horik kaltegarriak direla. Baina, hala ere, intsektu-hiltzaile mundu guztian zehar erabiltzen dira, eta desusantzaileen aldeko propaganda kanpainak ikusirik, bat dirudi, geure gizartean ongi ikusiak eta onhartuak izateko, desusantzaileak erabiltzea baldintza beharrezkoa dela. Eta horrela, bat edo beste dela, urtean zehar gas kaltegarri horien 500.000 tonela jaurtikitzen ditugu mundu osoan eguratsera. Hori ez da edozer gauza gero!

Puntu honetara heldurik, eta lehen amerikarren kasua aipatu dugularik, galdera bat egiteko go-go datorkit: Zergatik ez dute gas horien erabilkeraren aurkako kritika ere egiten?. Edo eta arlo honetan interes ekonomiko handiak ote dituzte?

ZENBAIT ONDORIO

Munduko bizitza ekilibrio oso arrikugarri batetan dago, ia ia eziraunkor den oreka batetan. Edozein faktore aldatzerakoan, katea batetan gertatzen denaren antzera, beste guztiak ere aldatzera behar izateko aurkitzen dira; hau da, hitz laburrez esanik, desorekan jartzen da sistema osoa, eta berriro orekara heltzeko prozesoa hasten da. Baina gero lortzen den orekan geratzen den egoera berria, aurretik zegoenaz oso desberdina izan daiteke. Honek dinosauroen eta aintzinako faunaren transformakuntza sakona aipa dezakegu.

Zer gertatuko litzateke, ozono geruza desegiten edo alferrik galduko balitz? Eta galdera hau ez da hipotetikoa, zeren, egin diren kalkuluen arabera, daramagun abiadan segituz, 2010. urterako, egun dagoen ozono kantitatearen heren bat, galdua izanen baita. Horregatik, zientzizigonak oso kezkatu-rik daude gai honetaz, eta bai European eta bai Amerikan azterketa sakonak egiten ari dira bereruetan finkatuz, zenbait gai arriskugarriren erabilkera mugatze edo debekatzeko. Ba da orduan geure Lur zigortu hau zaintzen has gaitzen!



Herriarekin. Herriarentzat.




Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

elkar ikuskka



Greta Txantladze, georgiarra, 30 urte, Tbilisiko Unibertsitatean kaukasiar hizkuntzetan lizentziatua, ezkondua eta bi haurren ama, euskalaria eta aurtendanik Georgiako euskal estudioen arduraduna. Hauxe dugu geure solaskidea. Urruntasuna gora behera, gutunek, argazkiek, Iberia bien arteko bidaiak egin dute postaz.

Ez da hau, noski, elkarri egin diogun lehen eskutitza. Euskal Herritik hainbat euskal liburu, hiztegi eta aldizkari bidaliak dizkiot Georgiara, bai eta, berak, ordez, handik georgierazko obra eder mordoak hona igorri ere bai. Pertsonalki elkar ezagutu ez arren ere, Greta eta biok aspalditxuon lagun onak bihurtu gara.

Greta, zergatik hasi hintzen euskara ikasten?

Eta nola baliatu hintzen horretarako?

Erraza ala zaila gertatu zain ikastea?

Uste al dun ba dagoela elkarren artean kidetasunik?


Georgian ba al dute herriko jendeek euskaldunon berririk?

Mila esker, Greta, zinez esanik. Orain esaidan, zer giro dago estudianteen artean?

Ikasle asko edukiko al ditun?

Besterik esan nahi al dun, Greta?





Begira, 1963.ean unibertsitatean sartu nintzen, kaukasiar hizkuntzen fakultatean. Sasoi hartan Txikobava akademikideak euskaldunei buruzko hitzal-

di bat egin zuen eta horrek interes handi bat sorterazi zidan. Hori dela eta, euskaldunen hizkuntza eta historia ikastea erabaki nuen.

Zoritzarrez ez nuen georgieraz ez eta errusoz ere euskara ikasteko bibliographiarik. Frantsesez, ordea, bai, eta horregatik, René Lafon, Katerin Paris eta Hans Vogt kartvelologo famatuak idazten hasi nintzaizen. Berauek nondik hasi eta zeintzu li-

buru erabili behar nituen esan zidaten. Geroago Xota Dzidziguri akademikideak, ni graduatu ondoren, euskararen espezialitatean egiteko kontseilatu zidan.

Enetzat, bakarrik eta autodidaktikoki ikasten dihardudalako, ez da hain erraza. Pentsa ezak hire kassetteak jaso arte ez nuela inoiz euskararik entzun. Hemen ba ditugu euskal seme batzu, baina es-

painola besterik ez dakite. Zuen hizkuntzak duen gauzarik zailena, noski, aditza da, georgierak beza laxa. Grammatika, aldiz, georgieraren parekoa da zailtasunean.

Zientzigizon asko eskeptiko xamarrak dira horretaz, baina ene ustez, egunen batetan gure hizkuntzak, hots, euskara eta georgiera, metodo historiko konparatiboaz estudiatuak izanen dira, eta

beharbada, bien arteko hots kidetasun bat frogatzea lortuko da. Nik holaxe uste dut, bestela, bistan da, ez nuke euskarologian lanik eginen.

Hemen, Sakartvelon (Georgian) jende guztiek, bai langileek, bai baserritarrek eta bai intelektualek ba dakite Basketi-an (Euskal Herrian) beren anaiak dituztela. Georgiarrek poz handia lukete egun batez gure hizkuntzen arteko ahaidetasuna frogatuko balitz. Niri kultur elkarte askok dei egiten didate Euskal Herriaz eta euskaraz hitzaldiak emateko. Bertoko poetek, bestalde, maiz egiten dituzte be-

ren poemak euskaldunetz. Ilia Tabagua irakasleak oraintsu liburu bat bukatu du Euskal Herriaren historiari eta aurten argitara emanen da.

Honez gainera, Georgian "Euskaltzaleen Elkarte" bat eratu berri da. Horren burua Xota Dzidziguri akademikidia da, buruordea Tabagua irakaslea eta ni arduraduna. Hi, Xabier, ohorezko kide izendatu haugu, gainera.

Horien artean ere interesa ba dago. Aurten, Irailaren 1ean hasita, Philologiako fakultatean euskarazko eskolak ematen hasiko dira. Hirugarren ikastarotik hasita, estudianteez euskara ikasi ahal-

ko dute. Nik neuk oraintsu euskara-georgierazko hiztegi bat bukatua dut, horren bidez, noski, errazago estudiatzeko; orain, gainera, euskal irakasbide bat moldatzen ari naiz.

Jadanik eskolak ematen hasiak gara, baina unibertsitatean jende asko dago euskara ikasi nahi duenik. Datorren ikastaroan pilotxoia izanen direla uste

dut. Aipagarrietako bat Tamar Beriaxvili andrea da, ingeniaria; espainiera ere ba daki eta niri hizkuntza horretan laguntza ederra ematen dit.

Ba... ez dakit, poztu egiten nauela Sovietar Batasunean euskara ofizialki irakasten dela jendeak

jakitea, eta gure Herrien artean horrek lotura handiago bat sortzea nahiko nukeela.

Gmadlobt, megobaro Greta
(Eskerrik asko, adiskide Greta).

Xabier Kintana.

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

IKASTAROAK: Donostian eta Lazkaon

Iazko udan, bi ikastaro bereizi antolatu ziren: bata Donostian, eta bestea Lazkaon.

Ikastaro bereziak diot: azkenean jende guztietarik parte hartu zuen arren, ikastaro biak bereiziki serorentzat antolatuak izan zirelako.

Aurtengo udan ere, aipatu bi leku horietan izango dira euskara ikasteko ikastaroak. Gainera, iaz maila bakar bat izan zenez, aurten maila desberdinetan izango dira.

Hona ondoren leku bietako ikastaroen noiz-nolako gainez gain; geroago jakin eraziko dira berri zehatzagoak.

UDAKO BI IKASTAROEN EGITARUA

I.- Donostian: Colegio de Corazón de María.

NOIZ: Abuztuaren 16 - 28

NON: Colegio Corazón de María - Avda. De Navarra,
I.- Donostia. telef. 41 2758

ORDUAK: Goizean 9'30 - 1'30
Arratsaldean 4 - 6

Larunbat arratsaldez eta igandez jai egingo da
NORENTZAT: Euskara hitzegiten jakin arren, landu gabe
dutenentzat. Serorentzat antolatua da,
batipat.

IRAKASLEAL: Berariz gertutuak

GAIK: Gramatika: - morfologia
- deklinabidea
- aditza

Euskal literatura

Euskal jakintza: kondaira, e.a.

MAILAK: Lehen maila (alfabetatzen)

Bigarren maila (alfabetatzen)

MATRIKULA: 1.500 pta ikasaldiengatik

IZENAK EMAN: Abuztuaren 1 goa baino lehen. Idatzi edo
deitu hona: UDAKO EUSKAL IKASTA-
ROA.- Colegio Corazón de María - Avda.
Navarra, I - Donostia - telef. 41 2758

II.- Lazkaon: Beneditarrak

NOIZ: Uztailearen 12 - 30

Larunbat (osoa) eta igandeak jai egingo dira

ORDUAK: Goizean 9 - 12'30

Arratsaldean 3'30 - 7'30

NORENTZAT: 1) Euskara hitzegiten jakin arren, landu ga-
be dutenentzat; alfabetatzen lehen maila.
2) Euskara hitzegiten ikasi nahi dutenen-
tzat; euskalduntzen lehen maila.

GAIK (alfabetatzen mailan): Gramatika: - ortografia
- morfologia
- deklinabidea
- aditza

Euskal literatura

Euskal jakintza: kondaira e.a.

MAILAK: Alfabetatzen lehen maila

Euskalduntzen lehen maila

MATRIKULA: 1.500 pta ikasaldiengatik

IZENAK EMAN: Lehenbaitlehen; talde biak mugatuak
izango dira. Idatzi edo hotsegin hona:
Dionisio Amundarain.- Beneditarrak
-Lazkao (Guipuzkoa)- telef. 88 01 70


Oharra.- Eman zeure inguruan ikastaro hauen berri.

DEUSTUN 1.976

Deustun E.K.M. ETA
Bizkaiko Alfabetatzea Batzordeak Eratuak.

Tokia: Deustuko Unibertsitatean.
Cursos de Euskara.
Urtaila 1/31 Agorrila 4/31.

Orduak 4-8,30 Mailak 4
Matrikulatzeko tokia: EUSKANTZANDIA,
Ribera,6-1
Matrikula Epea: Maiatzaren 17tik-Ekainaren 25ra
Orduak arratsaldean: 5-7,30



UDAKO

EUSKAL UNIBERTSITATEA

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATERAKO DIRU ESKARIA.


Udako Euskal Unibertsitateari buruzko propaganda-liburuska bat atera berria da. Bi hizkuntzatan egin da (euskaraz eta espainolez) eta Hego Euskal Herriko lantegi eta zentru ofizialetara bidaltzeko asmoa dago.

Liburuska honen lehen partean, Unibertsitate hau babesten duten zenbait pertsona eta antolamenduren izen-deiturak datoz. Aurrerago Udako Euskal Unibertsitatea zer den azaltzen da, bertan landuko diren sailen eta irakasleen izenez bukatzeko.

Erdian, diru eskari bat egiten da. Dakigunez, ikasleek beren sakeletik ordaindu behar dituzte bidaiak, ostatua eta bestelakoak. Gastu hauk neurri batetan arintzeko, eta Unibertsitate honek diru laguntza ofizialik ez duelarik, antolatzaileak laguntza hori erakunde pribatuetatik lortzeko eginahaletan ari dira. Horrela, bai ikasle eta bai irakaslerentzako behak eman ahal izateko, laguntza maila batzuetan adierazten dira liburuska horretan.

Dena dela, nahiz eta propaganda hori hartu ez, inork diru laguntza eman nahi balu, Lan Kide Aurrezkiko kontu ireki honetan sar dezake dirua: 63-0-00070-2, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA.

Ematen duenari, mila esker.



**EUSKALDUNAK,
erosterakoan,
euskarazko
publizitatea
kontutan
hartzen du
anaitasuna**



SEGURANTZA SOZIALA, LANGILEEN ARDURA

Langile denek ondo dakite zenbateko alokairua ordaindu behar dieten, eta arrazoiarekin iskanbila haundia aterako lukete, pezeta bat guttiago emango baliete. Langileak eskubidea dauka bere lanagatik alokairu bat kobratzeko eta alokairu osoa kobratu behar du.

Baina bere lanak alokairu bateko baino eskubide gehiago ematen dio langileari; garrantzi haundiko eskubideak dira, baina langilea guttiago arduratzen da hortaz eta askotan ardura gabe dago, eta premiazoak direnean, atsekabe haundiarekin konturatzen da, langilea, bere eskubideak eta "paperak" ondo eta garbi edukitzea beharrezkoa dela.

S.S. ZER DA?

Segurantzaren Soziala zer da langilearentzat? Ia beti, langileak, enpresek bere lanagatik ordaintzen duten diru apurra, eta berari alokairutik kentzen zaion dirua, Segurantzaren Soziala dela uste du. Baina askotan langileak ez daki egiteko enpresek berena ordaintzen duen, eta besteetan ez daki berari tokatzen zaion, edo guttiago ordaintzen duen. Hamaika aldiz entzun izan diogu langileari, lan gabe edo gaixorik gelditzean, gorriak iragan behar izan dituela inongo laguntasunik gabe, enpresek Segurantzaren Sozialan afiliatu gabe zeukalako. Beste batzutan, zahartzarora heltzerakoan, bere azken urteak txiro bat bezala igaro behar ditu, zahar-sari ttiki batekin, enpresek Segurantzaren Sozialan gutti ordaintzen zuelako.

DIRU MULTZO BAT

Honelako gertaerak norberari gerta ez dakizkion, langileak jakin behar du nolatan dauden gauzak eta "paperak"; berak zaindu behar ditu bere eskubideak.

Lehengotik langileak jakin behar duena da Segurantzaren Sozialari ez zaiola txakur ttiki bat ordaintzen, dirutza haundia baizik. Halegia, hogeitabost mila pezetako alokairua duen langile batengatik, Segurantzaren Sozialari hamaika mila pezeta ordaindu behar zaio. Hots, bere lanagatik hogeitamasei mila pezeta irabazten duen langileak, hogeitabost berari ordaintzen zaio eta hamaika mila Segurantzaren Sozialan sartzen da. Honek, hilabetero Segurantzaren Sozialan hamaika mila pezeta sartzen, diru multzo bat suposatzen du eta gero, balio behar du langileari larrialdietan eta hestutasunen laguntza eskaintzeko:

- Gaixorik dagoenean, bera edo etxeokoa, mediku eta ospitaleak dohanik eta sendagailu merkeak edukitzeko.
- Edozergatik lan gabe gelditzen bada eta bere bizibidea galtzen bada, langabeko laguntza edukiko du.
- Ezkontzen bada ezkon-sari bat emango zaio eta gero emazte edo semeengatik babesa edukiko du, etxeokoa gastuak pixkat lasaituz.

d) Gizona zaharra egiten denean eta lan egin ezin duenean, zahar-sari batekin bakean biziko da hil arte.

e) Hiltzerakoan bere etxeokoa ez dira laguntza gabe geldituko, alargun-saria eta umezurtz-saria beren lasaitasuna izango da.

ESKUBIDEAK ZAINDU

Denok dakigu Segurantzaren Sozialak gaur egunean eskaintzen dituen zerbitzuek eta laguntzek akats bat daukela: Medikuen eta Gaixotxeetako sendaketak ez dira behar ziren bezainbat onak, eta babesak eta sariak are eta guttiago direla. Langabeko-sariak eta zahartzarokoak askotan ez dira aski izaten gizonari bizimodu dexente bat emateko. Langileak hemendik hasi behar du arduratzen, indar eta ahaleginak hobetzen zerbitzu osoagoak lortzeko. Baina Segurantzaren Sozialako laguntza berez guttiegi bada, askoz txarragoa izango da langileak bere "paperak" ondo ipiniak ez baditu, eta horretarako langileak argi ibili behar du, eta bere eskubideak ongi zaindu.

Lanean hasten denean, enpresek langilea Segurantzaren Sozialan afiliatu behar du, eta hau da langileak lehengoz zaindu behar duena. Segurantzaren Sozialako ordaintzeko enpresa askorentzat kostoa haundia suposatzen dutenez, langileak afiliatu gabe edukitzen dituzte, merkeago izan dadin. Baina afiliatu gabeko langileak ez du inolako eskubiderik eta enpresari afiliatzea exijitu behar dio.

Gero langilea bere lanaren arauera mailatua dago, eta bakoitzak bere mailan afiliatua egon behar du. Nolako maila, halako ordaintzea Segurantzaren Sozialan, eta ordaintzeko haundia badira langilearen eskubide batzuek ere haundia izango dira: zahartzaroko-saria, langabeko-saria, etab. Horregatik langileak ordaintzeko zintzo egin daitezkeen zaindu behar du, berak egindakoak izango balira bezala. Enpresek, langilearen ordean Segurantzaren Sozialari ordaintzean, bitarteko bat besterik ez da; langileen diruak langileentzat eskubideak ekarriko ditu.


S.S., LANGILEEN GAUZA

Horretarako, beti jakin behar da enpresek langileen ordean zenbat ordaintzen duen, eta enpresari ordaintzeko ondo egiten exijitzea; langileak eskubidea ba du horretarako eta bere ardura da.

Askotan, Segurantzaren Sozialako beren egoerari buruz, ardura gabeko langileak ikusten dira, eta gero honen ondorioak premietan aurkitzen diranean jasaten dituzte. Batzuetan, enpresaren gauza dela uste dute eta haiekin zer ikusirik ez duela. Besteetan, gaixotasunak, istripuak, zahartzarora, heriotza, urrun daudela uste dute, eta ez dira hortaz kezkatzen.

Baina ez da honela, eta, Segurantzaren Sozialako beren egoerari buruz, ardura hartu behar dute, alokairuarekin egiten den bezala. Hilabetea bukatzen denean etxera eramaten duten alokairua, bere lanaren fruitu osoa ez dela pentsatu behar dute. Alokairuaren o/o 44 Segurantzaren Sozialan sartu dute, berak kobra gabe; eta berak sartu dute, etorkizuneko larrialdietan, eskubide osoz laguntza eska dezala. Sasoi den bitartean, ahaleginak egin behar ditu langileak, bere eskubideak zaintzen, premietan ustekabe zoritxarri aurrez egiteko.

txiki handiak



ESKOLAURREKO HEZIERAREN GARRAN-TZIAZ.

Guraso askorentzat hiruzpalau urtetako haurra "ume-gorri bat" baizik ez da, beti bihurrikeriak egiteko prest dagoen ume mukizua. Lehen urte hauetan bere semeak ikastolara bidaltzen dituzten guraso asko eta askok ere ez diote garrantzi handirik ematen haur horrek bertan egiten duenari "Pozik doa eta etxean ez du gerrarik ematen, behintzat". Zenbaiti barrenean min ematen dio hain ume ziztrin baten-gatik halako kuotak ordaindu behar izateak eta E.G.B.—en dabilzaneanekin konparaketak egiten ditu. Inor guti hel-tzen da haur ezinegon horrengan egindako diru inbertipena-ren errentabilitatea ezagutzera.

Eta esan beharrik ez dago guraso horiek beren haur-txoa gutiستهak ondorio larriak dakartzala ikastolara eta haren hezierara.

Gurko pedagogoez gero eta garrantzi handiagoa ematen diote lehen urteetako haurren hezierari. Hona zer dioen, adibidez, G.Mauko-k: "Haurren lehen sentipenak, haren sentiberatasunaren lehen emozioek baldintzatzen dute geroko hazkundea. Erantzukizuna eta izaeraren berezitasunak ezezik, adimenarenak eta osasun fisikoarenak ere haiei loturik daude". Baina zoritxarrez, zera ahazten dugu sarritan, hategia, "bizitzako lehen laupabost urteak erabakiz-zaileak direla gai honetan".

Gurko irakaskuntza eta hezieran —areago bihar-koan— goitik behera sartutako funts edo edukia haurra betetzeari baino garrantzi handiagoa ematen zaio, beronen ahalmenak lantzeari, eta etengabe eta gero eta bizkorrago aldatuz doan gizarte batetara egokitze gaitasunak prestatzeari. Beraz, lehen haurtzaro honetan egin daitezen inbertipenen akzioak gero eta gorago doazke etorkizunean.


Heziera eta irakaskuntza, zaku batetan gauza pilo bat sartzea bezala ikus dezanak, sekula ez du Eskolaurreko haurren garrantzia ulertuko; eta haro honetan autonomia eta nortasuna haintzakotzat har ez ditzanak, beste haro batzuta-ko klitxez baliatuko da haur hori aztertzerakoan. Ikastolaren kasuan, heziera orokor bati begira ezezik, garrantzi handia hartzen du elebitasunari dagokionean ere haro horrek. Elebitasun eta kulturbitasunean hezi nahi dugun haur horren lehen prestakuntzak izugarritzko erantzukizuna leporatzen dio ikastolari. Zenbaitentzat dirudienez ez dago bat ere garbi haurtzaindegi batetan egin ohi denaren eta laubost urtetako haurrak behar duen hezkuntzaren arteko desberdintasuna, presaka eta nola-hala irakurketa eta idazketa-ren teknikak sartzeaz aparte. Eta ba da eremu zabal eta aurragokorik adin horretako haurrarenagan!

Psikomotrizitate, erritmoa, sormena, expresamena etab. bezalako hitzei zerutar musika deritze askok.

Andereñoi dagokionean, ba dira hor-hemenka sakabaturik adin honetako munduan buru-belarri murgildu diren ale arraro batzua, baina zoritxarrez, bestelakoak gehi-ago direla aitortu beharrean gaude. Eta zer esanik ez dago gurasoei buruz: ikastolan bertan eragileak urri badira, hal-tzari intzaurrak eskatzea litzateke haurren aita-amengan kontzientzi maila handia bilatzea.

Familia eta ikastolaren arteko lotura nahitaezkoa da-din bada heziera osoan zehar, haro honetan "hil ala bizikoa" dela esatera ausartuko nintzateke. Baina lotura hestu hori sor dadin, derriorrezkoa da esku artean darabilagunaz jabe-turik egotea eta horretarako klitxe zaharrak zokoratzea. Haro honetan haurraren aurki litezkeen akats eta eska-siak, kasu askotan, erraz osa eta konpon litezkeenak izan ohi dira. Axolagabekeriak gerorako uzteak arazoak gero eta astunago bihurtzen ditu, atzerapenak ekartzen ditu ikas-kuntz eta heziera prozesura eta sarritan kalte osagaitzak sor-tzen. Gurasoek eta irakasleek sarritan haurrerekiko ematen dute epai ezagun hori: "Ez du ikasteko balio", kasu askotan xinglekeria bat izaten da edota hasera batetan konpon zi-tezkeen eta bertan behera utzi ziren arazo berandutu-oren ondoria. Nigargarria litzateke, ahalbideak ditugularik, ardu-rabekeria hutsez horrelakorik gure artean gerta ledin!. Honetan ere, harako esatera ezagun hura kontutan hartu be-harrekoa da: "Gauza handi orok hasiera tikia ohi".

X. Mendiguren.



HERRIA ETA FEDEA

Euskal Herrian, aspaldiko partez, gauza sinpleak esaten hasi beharra dago. Munta handiko ihardunak alde batera utzi eta geure eguneroko esperientzia hurbiletik azterkatu beharrean gaude. Fede kontuan ere beste horrenbeste gertatzen da.

Herrigintzan hain urduri gabiltzan tenore honetan, egokia litzateke guzti horrek fededunari planteatzen dizkion problemak ere ukitzea. Hain zuzen, herrigintzan txertaturiko fedezko gogoeta baten premia gorria nabari da gaur Euskal Herrian. Gainera, herri bizitzan zenbait aldaketa eta berrietasun somatzen denean, orduantxe da garai aproposa fede mailan ere bide berriak urratzeko.

Hala ere, ez dago esaterik denak lo daudenik. Besteak beste, euskal elizbarrutietako apai-zen pastoral lanaren bateratzea martxan dago, horretarako aurreprojektua prestatua dagoelarik. Aurreprojektu horren xede nagusia hauxe da: "Euskal Diozesetako (Baiona, Bilbao, Iruinea-Tutera, Donostia eta Gazteiz) apezek eta apezentzat pastoral lana bateratzeko zerbitzu permanente bat sortu, elkar hobeki aditzeko eta, erarik egoki eta eragileenean, pastoral prophetika eta gure Herriaren askatzaile bat praktikara eraman dezagun".

Gure Herriko fede mugimenduari nolabait laguntzearen, gogoeta batzu eskaini nahi nituzke gaurkoan.

GIZA IDENTITATEA ETA KRISTAU IDENTITATEA

Aspalditxotik gure Herrian somatzen den erlijio krisia latza da, nahiz eta axalean besterik iruditu. Jendearekin mintzatu besterik ez dago horretaz jabetzeko, jende ikasiarekin eta langileekin batik bat.

Datu sinple honi bueltak ematen hasiz gero, baten batek gure Herria kristau identitatea galtzen ari dela esanen dizu. Eta zu, agian, konforme geratuko zara, halako hitz biribilak ulertu badituzu behintzat.

Bai, egia dateke. Gure Herria bere kristau identitatea galtzen ari da. Baina zergatik hori? Jarri al gara inoiz behar bezala pentsatzen? Hemen ere, beste zernahitan bezala, topikoetara jotzea da erosoena eta gure kasua besteen zakuan sartzea. Besteekin alderatzeak zenbait gauza argi ditzake, noski (gu ere mundu honetan bizi baikara); ez denak, ordea, eta hortxe dago kokka.

Zergatik ari gara geure kristau identitatea galtzen? Beste zenbait arrazoiren artean, ez ote da geure giza identitatea galtzen ari garelako? Eta giza identitatea, halabeharrez, herri identitateaz batera doa. Ez dago giza identitate osorik herri identitate-rik ezean. Honek gurean garrantzi handia du, ene ustez, Herriak egiten baitu gizona, hein handi batean.

Hortaz, Euskal Herriko fede krisia gure kultur eta herri krisiaren barrenean planteatu behar da. Kristau identitatearen hauzia giza eta herri identitatea alde batera utziz planteatu nahi izatea, bide okerra eta alienatzailea da.

Oraindik behar bezala ikasi gabe dago, Herriaren eta euskaldungoaren krisiak zenbaterainoko eragipena izan duen gure arteko erlijio krisian. Ikasi gabe egotea zerbait da, baina aipatu ere ez egitea, hori da handia! Hala ere, hortxe gabiltza mundu berria deskubritzen eta egiten ari garelakoan. Herrelako despisterik horratio!

KATEKESIA ETA HERRI BALIOAK

Azken urteotan, arrapaladan sartu dira gure Herrian teologiaren eta katekesiaren haize berriak. Hori dena ongi dago. Baina ez ote gabiltza kanpoan egiten dena soil-soilik kopiaturik? Non da gure sormena eta kreatibitatea? Eta batik bat non da gure Herria teologian eta fede heziketan?



Kaixo, ikaskide!

Hemen duzu ALFABETATZEN lehen liburua. Lehen maila hontan, eguneroko gai arruntak erabiliz, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi nahi dugu.

Berton aurki ditzakezu: euskalkien arazoa, euskararen teknikoaren erabilketa, eguneroko gorabeheren euskaldunketa, eta abar.

Arrasateko Teknik Ikastegiari esker egindako liburu hau euskaratu nahi baduzu, eska ezazu helbide hontara:

Editorial Cinsa — «Alfabetatzen» — Pelota, 4-1. — Bilbao-5.

Gaurko katekesiaren bideetan barrena abiatzen bazara, behin eta birritan esanen zaizu, fede heziketan giza balioak eta giza esperientzia haintzakotzat hartu behar direla eta hortik abiatu behar dela aukeran. Ados nago horretan. Baina giza balioak eta giza esperientzia nola hartzen dira, bakar-ka ala Herrian? Herri esperientzia bera nahiko esperientzia sakona da eta giza balioetan herriaren balioak ere ba dute zerikusirik.

Nire eritziz, geure arteko fede heziketan, gizona oso bakarka hartzen dugu, Herriarekiko lokarriak mozturik. Eta hori gizona murriztea eta ttikitzea da. Gizona hezi eta gizonagotu beharrean, deserrotu eta hautsi egin genezake horrela.

Fede heziketan, Herriaren balioak serioekiago hartu beharrean gaude. Hori egiten ez dugun bitartean, ez gabilta bide zuzenetik. Nik ez diot inori borondate onik ukatuko, baina ni ez naiz hemen borondateaz ari, errealitate gordinez baizik. Azken finean, gainera, borondate onenaz ere disparate garrantak egin litezke.

Beti gogoan eduki beharrekoa zera da: ez dagoela Eliza egiterik, era berean eta nolabait Herria egin gabe. Eliza egitea eta Herria egitea oso loturik daude fededunarentzat, nahiz eta gauza bera ez izan.

On litzateke kriterio hauen arauera gure pastoralgintza osoa aztertzea. Hortxe azalduko lirateke gure ahuleziak eta ajeak.

Erakusburu bezala, puntutxo bat ukituko nuke: zer sentidu dute Euskal Herrian hain oparo egi-

ten diren erdara soilezko meza "garbiak"? Meza horiek ere Eliza al dagite? Non da hor Herria eta beronen baloreak? Adiskideok, gabiltzan señokia-go.

EBANGELIOAREN PREDIKUA HERRIAREN-TZAT DA

Gaurregun, teologia politikoaren eta liberazio teologiaren haroan, aski garbi dago jadanik, ez dagoela taxuzko ebangelizaziorik, tokian tokiko Herriaren gorabeherak eta proiektuak alde batera utziz.

Gainera, ebangelioa berez persona bakoitzari eta Herriari egiten zaion predikua da. Hortaz, ebangelioaren predikuak berezkoa du herri dimentsio hori kontuan hartzea.

Gure pastoralgintzak eta ebangelizatze lanak seriotasun apurrik izango badu, geure Herriaren historia, kultura, hizkuntza, proiektu politikoak eta abar guztiz haintzakotzat hartu beharrean gaude. Bestela, oharkabean, ideologia hutsa bilaka daiteke ebangelioa gure ahotan eta gure ekintzan.

Elizak herria biltzea du helburu, ebangelioaren predikuz. Horretarako, Elizak Herrian eta Herriari lotuta egon behar du. Herriaren barrenetik pentsatu beharko du Elizak bere ekintza berezia, hots, ebangelizatzea. Hortik kanpora ez dago ebangelizatze seriorik.

Jose Altuna

ANAITASUNAKo zuzendari jaun hori,

316. ANAITASUNAN "FITXAKETAK" izenburua daraman Xabier Armendaritz izenekoaren artikulua penagarri eta delatorea, tristezia handienarekin irakurri ondoren eta pentsaturik KRISLUren izen ona biziki iraindua eta ohinperatua izan dela; editorial honekako lagunok, gutun honekin batera zuzentzen dizugun agiria argitara dezazula, otoi eskatzen dizugu. Agur.

KRISLUko zuzendari (zin.)
(L. Haranburu-Altuna)


KRISLU ETA FITXAKETAK

316 ANAITASUNAN, izenburutzat "FITXAKETAK" daraman delako Xabier Armendaritz artikuluan KRISLU editorialaren izen ona itxura gabe eta bortizki iraindua izan dela uste dugunez, honoko puntu hauk adierazten ditugu euskal irakurlekoaren jakin garri gerta daitezten:

- 1.- KRISLU ez da inongo talde edo alderdi politikorena; eta KRISLUko inork ez du inoiz kontrakorik agertu.
- 2.- KRISLUren helburu nagusia, bere hastapenetan zuena da oraino, alegia, euskal kulturaren arloan agertzen diren espresio ugarien miraila izatea, ideologikoki ezker zabal baten abiapuntu eta batasun bide izan nahiz. Faltsiarik gabe eta harrotasun guztietatik harat uste dugu fidelki jarraitu gatzazkiola gure bideari, abertzale eta demokratikoki jokatuaz.
- 3.- KRISLUren finanziaio bide bakarra bere suskribidoreak dira eta norbaitena izatekotan berea dute liburu-sorta hau; hain zuzen ere suskribidoreak dira urteroko programaketa pausatzen dutenak.
- 4.- KRISLUkook uste dugu, aipaturiko ANAITASUNAKo artikulua horretan kometitzen diren joku desleial eta delazio alferrak euskal kulturgintza aurrerazale eta demokratiko batetik kanpo daudela.

KRISLU


Donostian 1976.ko Maiatzaren 9ean



Kazetariaren zeregina inguruan gertatzen denaren berri zehatza ematea da. Hortaz, neronek Lejoako Unibertsitatean PCEko zenbait lagunek hainbeste entzuleren aurrean esan zutena berraiatu besterik ez dut egin, haiek Kriseluz esan zituzten gauza batzuren egiazkotasunaz, hain zuzen ere, neure dudak agertuz. Inon salhatzaile bila hastekotan, nik uste, hitz haik publikoki esan zituztenengan aurki dezake Kriseluk errudun hurbilagorik. Xabier Kintanak.



PETROLIUNTZIAK BETI ARRISKUGARRI



Aspaldisko ez genuen entzuten, petroliuntziekin gertaturiko istripuren albisterik. Baina, zoritxarrez, berriro ere heldu zaigu horrelako baten oihartzuna, oso hurbiletik gainera.

Euskal izena zeramañ petroliuntzi bat, "Urkiola" halegia, urpeko hondoa joz, sutan jarri da A Cruña-ko portuan. Kapitaina hila da.

Milaka tolenada petrolio itsasoko uretara joan dira, eta marea beltza hasi da. Inguruko arrainak hil egin dira, inguruko arrantzaleak —sasoi batetarako behintzat— lanik gabe geratu dira, inguruko marisako bizitegiak pikutara joan dira,... Ene uztez, gertakari honek iruzkin berezia egitea merezi du, eta pentsabide ugari ere eman behar digu.

Petroliuntziak gero eta handiagoak egiten ari dira. Zertarako? Garraio kostuak ttikiagotzeko. Baina kostuen artean ez dira sartzen ekologi eta biologi kostuak. Eta, goian aipaturiko gertakariaren kasuan ikusi dugunez, istripuren bat gertatzean, kostu horik oso handiak izan daitezke. Baina, antza denez, biologiak eta ekologiak ez dute diruak bezainbeste garrantzirik.

Bilboko portua handiagotzen ari dira: superportua egiteko asmotan eta lanetan dihardute. Bertara Urkiola-k baino lauzpabost aldiz petrolio gehiago eduki eta garraia dezaketen petroliuntziak sartuko dira. Pentsatu ote da horrelako istripu baten posibletasunean?.

Ramon Garai.

BERGARAKO UDALETXEA ETA FORUAK.

Maiatzaren 17.ean bilera municipal bat izan ondoren, Bergarako Udaletxeak erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: "Contencioso administrativo" mailan Gipuzkoako Gobernadore Zbilan erabaki baten aurka jotzea. Erabaki honetaz, Gobernadoreak ezeztatu nahi zuen Bergarako Udaletxek foruak eta Estatutu autonomiko baten alde egindako eskakizuna. Eskakizun honen bidez, hain zuzen, foruen berriztapena eta autonomia estatutu baten proiektu bat egitea eskatzen zion Bergarako Udaletxeak Erregeari, "gure herriak ez baititu ukatu nahi bere betiko autonomi erakundeak", Bergarako alakteak zioenez.

Bergarako eskakizuna erabat onhartua izan zen Gipuzkoako beste udaletxe askotan eta hauetatik hogeitabik eskakizun berbera egin zien Erregeari. Bizkaian, tamalez, bi udaletxek bakarrik (Markina eta Berri) hartu dute gipuzkoarren bidea.

Eskakizun hauek deuseztatzeko eta bere arrakasta geldituz erazteko Gipuzkoako gobernadoreak gorago idatzi dugun erabakia hartu zuen eta Iruineko "audiencia territorial"ean aurkeztu ere. Orain Bergarako Udaletxeak bere erabakiaren zuribidea egiteko Iruinera eta Goi Tribunalera jo du ere. Bere ordezkariak prokuradore hauk izango dira: Iruineko Beunza Arbiones, Echevarria Aizpuru eta Ruiz Lobera jaunak; Madrileko Sorribes Torra eta Dorremoechea Aramburu jaunak; Bergarako hiri-batzarren defendatzaileak Larumbe, Unzueta, Navajas eta Cuerda abokatuak izango dira.

EUSKARA ETA IRAKASLE-IKASLEAK.

E.G.B. Irakaskuntzako ikasleek, gutun batez, euskarari buruz duten egoera agertu digute oraingoan. Gutun hori bere Erretore Zuzendari eta "Euskal Herri osoari" zuzenduta dago laurehun lagunek izenpetzen dute.

Gutun horrek dioenez, gure herrian ematen den heziketa barruan euskarak eta Euskal Herriak toki garrantzitsuenetako bat izan behar dute.

"Gaurko egia ezagutze —diote— beharrezkoa da gure Historia ezagutzea" Horregatik aldaketa sakonak eskatzen dituzte unibertsital politika barruan. E.G.B Irakaskuntzaren Ikastetxeetan aldatu behar diren puntu garrantzitsuenak hauk dira:

A) Bizkai, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako Irakaskuntz Ikastetxeetan euskarazko klase ofizial eta obligagarriak eman beharko dira ikasleentzat, Euskaltzaindia zuzendaritzat hartuz.

B) Udal Herriko Historia, Geografia eta Literatura irakasteko, katedra bereziak gertatuko dira Euskararentzat sortutakoekin batera.

C) Ikaskizun guztiek (eta batez ere Pedagogiari buruz egingo direnak). Euskal Herrian bizitzen dugun errealitatean sustraituak egon beharko lukete.

Eskakizun hauk behar bezala erantzunak izan beharko lirateke gure herrian, egiazko bilinguismo bat nahi baldin badugu.

Liburuaren eguna, aurten, inizatiba txalogarriz, eskuindarrek handaturiko liburudendei laguntzeko antolatuta da gure artean.

Diru-laguntza honek arrakastarik izan du. Oso ondo erantzun baitute bai liburu-saltzailek bai eroslek. Laguntza bidea oso erraza zen, hots, egun horretan egin ohi den o/ol0eko beharpen hori liburu erosterakoan, hondaturiko liburudendetarako, erosleak eskaintzea.

Dozena pare bat liburudenda izango dira, bai, dagoeneko gure artean hondatuak, gehiago ez bada. Jokabidea beti berdintsua da: liburudendak desegin eta oraindik jabeari heriotz-mehatxua bota. Hego aldean bakarrik ez baino Ipar aldean ere holaxe ibili dira. Ez da inor harrapatua izan.

Liburuaren eguna ospatu delarik, gure herri askotan liburu-saltzaile atakatu den ekintza gisa ulertua izan da. Nork atakatuak? Eskuin muturrekoek.

Totalitariek beldur izan diote beti liburuari. Savonarolak eta Inkisizioak erre egin ohi zituzten. Asko gara mugatik liburuak pasatu ezinik ibili garenak. Mugaren bi aldetatik liburu-saltzaile zenbait ere ez dago lasai. Gerrillero edo direlako horiek, ilunetan lan egiten duten horiek, ikara sortu dute. Mehatxuz eta lehergailuz hainbeste eta hainbeste liburudenda jo dituztelarik, beldurtzekoa ere ba da. Ez da gaur arrisku gabekoa liburu abertzaleak edo eta aurrerakoiak erakus leihuetan jarzea. Liburu denda asko eta asko izan dira atakatuak Penintsula mailan ere.

Zergatik liburuaren aurtako amorru hori? Eskuindar haurrentzat nonbait, maoismoa Maoren "liburu gorriak" sortarazi du, eta Pariseko 68ko Maiatza Marcuseren "Dimensio bakarreko gizonak" izeneko liburuak. Lasai daitezten "Maiatz Gorri" hartako leader zen Cohn Bendit-ek testigutza edo "boutade" ekar dezakegu, halebata, Marcuse nor zen ere ez zekiela.

Liburuak ez du iraultzarik egiten. Zorionez edo zoritxarrez, liburuaren eragina hori baino motelagoa da. Dakigularik liburu bategatik ez da sistema totalitaririk koloka jarri. Baina gobernu moeta hauek ipini ohi dituzten mugak, trabak eta oztupoak ezaguturik, haien etsairik handienetakotzat har dalteke liburuak. Zergatik, bestela, hainbeste zentsura, hainbeste kontumate eta hainbeste kontrol?

Zer du, ba, liburuak gizonak hola erabil dezan? Zeren eta, uste dugunez, gobernu eta talde totalitariek dioten beldurak eta amorruak, gainerontzekoek diogun begirunea a contrario erakutsi besterik ez du egiten. Liburuak betidanik zerbait sakratua, uki-ezina izan da. Bibliarekiko begirunean, zalantzarik gabe, Jainkoaren Hitzari zor zitzaien errespetuaz gain, ba zen Idatzia izatearen itzalik ere. Idatziak, liburuak, betirako gordetzen du Hitza. Verba volant, scripta manent. Ez da hau antzinako gauza. Gure artean ere behin baino gehiagotan aurkeztu zaigu liburu bat idaztea bizitzako alternatiba gisa: seme bat izan, arbola bat sartu edo liburu bat idatzi esan ohi da.

Egia da liburuak zuen itzal sakratu hori demokraziarekin galduz joan dela. Irakurtzen jakitea, demokraziari esker, ez da aurrerantzean pribilegio bat, elite eta gutiengo hautatu batzuen monopolioa. Zibilizazioaren aurrerakada, neurri handi batetan, idatzitik, liburitik igarotzen da. Askabide da liburuak.

Batzurentzat liburuak kontsumogai den bitartean, guretzat askabide, kulturabide da. Hori gerrilleroek arretaz bereizten dute. Papillon gisako libururik ez dute erreko, ez; bai baitakite ongi liburu horik "iheskeriarako tresna" direla, ihes-maratilararen funtzio dutela. Ez dira arriskutsu horik. Beste batzu bai, ordea. Eta horien artean euskarazkoa. Zergatik? Euskaldunontzat, liburugintza herria egiteko bide bat delako, kultura heldu eta aurrerazale baten atzetik gabiltzalako. Arrasaten lehen aldiz liburuaren Azoka ospatu zelarik, hau zen slogan-a: kulturak askatuko zaitu. Librugintza, kulturgintza, herrigintza: ba da batasunik.

Liburuaren eragina neurtzea erraza ez izanik ere, segurtasun osoz baieztatu dezakeguna zera da, halebata, gerrilleroen bonbak baino indar gehiago duela. Gau-gizon hauek liburudenda hondatu ondoren JAKINTZAKO liburu-saltzaileak esana goitik behera onhar dezakegu: kultura desegiteko, bonba baino zerbait gehiago beharko da.

Joan ALTZIBAR

ERDARA BIZI ETA EUSKARAZ IDATZ.

"Ehun metro" elaberri eder eta zolia irakurri berri dudalarik, Zeruko Argian eginiko maiseakuntza batetan, uste du, Ramon Saizarbitoriak bere obra horretan sartzen dituen erdarazko esaldi eta textuez zertxobait ikusi dut. Lertxundiri, nik uste; ez du seguririk

gomuta. Xabier Kintanari noizbait entzunda eta bera bat etorritako bezala, Saizarbitoriak sartzen duen erdara guttia du Lertxundik zuzenesten, h.d., oraingo egoeraren isaladatze benetako bat egin nahi izanez gero, gauzak gerta eta jazotzen diren erara berregin eta berpentsatu egin behar direlako, erdara hütsez, halebata. Hau litzateke beraz elaberrigintza errealista baten irtenbide bakarra. Aiputan darabilen kasuan beharbada hala dateke, hots, orain arteko edozein eskolgiroa aitatzerakoan Espainiako bandera "roja y gualda" dela esateko. Horregatik hatsarria ezin dezaket onhar ez eta ontzat jo.

Saizarbitoriaren elaberrian oso ondo dago oreka mamitua, eta hainbeste erdara sartu arren ez da arrotz gertatzen; hor dagoke seguru asko, beste zertzelada askogaz batera, jakina, obraren literaturtasuna, arintasuna eta kondabideez gain. Baina bide hori hatsarri irmo bezala ezin ontzat eman, bizi ez gintezkeelako, euskal literaturarik ezin egon bailiteke, erdara bizi gara eta. Eta hau ez da nahikunde hutsa edo beste edozelako kontu, eguneroko errealtate latza baizik. Euskarak ez du gure gizarteon, oraingo, ezer askorik balio, gero eta gehiago balioztatzen bada ere. Saizarbitoriak berak aipatua: "joder, ¿describes en vasco? Oye, no te entiendo". Honegaz zera esan gura dut, erralista izatea erdara bizi izatea duela ondorio, eta beraz gure errealtatea ondu eta eraiki behar dukegula. Erdara joan, etor, baina EUSKARA BIZI, eta beraz Euskarazko eta Euskal Literaturari euts.

Ebazpena agerian dago, lehen esandako halako kasuetan izan ezik, Eskizofrenikoak bihurtu behar dugu, bizi ez garren errealtatearen isladatzaile zehatzak izan behar dugu, errealismoa zuzentzat kontsideratzen baldin badugu, errealismoaren bideei atxikitzen baldin bagatzaizkie, noski. Eta beroni ez badiogu eusten, are arrazoi handiagoz, euskadunon mundu irrealak kretzerakoan.

Azkenez, eta amaieratik urruti gabe, zera duket aipatzer, Saizarbitoriak darabilen euskara formalki desitxuroso eta lantzean behin lar korrontoso. Hori bai dela kontu apur bateko lana, eta horretan bai ez dagoela erdararekiko atralaka zertan ekarterik. Eta kritika ez dator garbizalekeriaren ezein egongunetik etor, sentimendu linguistiko hutsetik baizik, munduko edozelako hizkuntzako mintzatuailerren batek duen sentimendu linguistiko hutsetik, hots, nor bere hizkuntzagaz harro senditzeko sentimendu eta esku-bidea.

Andolin Eguzkitza.



HIZKUNTZA

BATAK / BATZU HITZA NOLA ERABIL

ANAITASUNA aldizkari honetako 307. zenbakian, BATAK/BATZU hitzaren deklinabideari buruz mintzatu nintzen. Han esaten nuenez, kasu honetan komenigarria da, hitz mugatu eta mugagabearen desberdintasuna deklinabidean agertzea. Eta, hain zuzen ere, deklinabide moeta horiek nola-koak izan behar luketen adierazi nuen artikulu hartan.

Erabilera hori finkatzeko, adibide batzu jarriko ditut oraingo honetan. Adibide hau Imanol Berriatua lankide eta irakasleak emanak dira. Horregatik, artikulu honen azpian doan sinadurak, berarena izan behar luke nirea baino gehiago. Dena dela, hemen naukazue beraren baimenarekin idazten, eta izatez nireak ez diren adibide batzu aurkeztuz.

Eta besterik gabe, ondoko lerroetan, hitz mugatua eta mugagabea zentzuz eta idatziz nola desberdintzen diren ikus dezakezue:

"Ordu **batzuren** buruan, Frantzia eta Alemaniako medikurik onenak etorriko dira Bilbora, hemengoekin biltzarre bat egitera.

Oso jakintsuak omen dira. Bai **batak** eta bai **besteak** euskaraz mintzatuko ei dira.

Frantses medikuak alemanak baino hobeak direla esaten dute kazetari **batzuk**. **Beste batzuk**, ordea, alemanak hobeak. "El Correo Español"eko kazetariak eta "La Gaceta del Norte"koak ez dira ados: **batzuek** eta **besteek** ez dute segurtasunik puntu honetaz.

Hasi da jendea etortzen. Neure adiskide **batzu** ikusi ditut. **Beste batzu** ez dira oraino etorri.

Hasi da biltzarrea. Lehen hizlaria, alemana, gaur egun oso modatan dauden gai **batzutaz** mintzatu da. **Batzuren** eritziz, ederki hitz egin du. Ni hitzaldi **batzutan** aspertu egiten naiz; gaurkoan, aldiz, adi adi egon naiz. Bigarren hizlariak, frantsesa bera, gai oso zail batez berba egin zuen. Entzule **batzuri** ez zaie atsegingarri izan; **beste batzuri** bai. Holako batzarreetan, gustu eta eritzi askotako entzulerik izaten da.

Niri neuri hizlari biak gustatu zaizkit, batak zein besteak gutziz argi azaldu du bere pentsamendua. Bitan etorri naiz holako batzarreetara, eta bietan ikasi ditut, lehen ez nekizkien gauza **batzu**.

Gero beste mediku **batzu** mintzatu ziren. Batzarreak hiru ordu iraun zuen. Ai holako jakintsu **batzuk** sarriago hitz egingen baligute! **Batzuek** eta **besteek** —medikuek eta entzuleek— denek irabaziko lukete. Holako bilkurek **batzuei** eta **besteei** mesede handia egingen liekete."

J. R. Etxebarria

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdy

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.
D. L. BI-1753 67

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

AZALPENEA:

LUZETARA: 1: S. - 2: Gaitu. - 3: L. Uki. S. - 4: Itsusia. -
5: olaT. ialA. - 6: ibraksO. - 7: A. Apo. J. -
8: Agian. - 9: R. - 10: i. - 11: Zilar.

GOITIK BEHERA: 1: O. - 2: Lilia. - 3: G. taB. A. Z. - 4: -
austraG. I. - 5: Siku. Apiril. - 6: Tisikoa. A. -
7: U. iaS. N. R. - 8: saloJ. - 9: A.

EGURATS: atmósfera.

EI: omen.

ENTREPRESA: empresa.

ERREPIKA(TU): repetir, -ido.

ERAKUSLEIHO: escaparate.

EUSKALARI: euskara zientifikoki estudiatzen duena.

FROGA(TU): probar, demostrar, -ado.

GERUZA: kapa.

GREBA: huelga.

GUTIETS(I): despreciar, -ado.

GUTUN: karta.

HAUZATEGI: barrio.

HEGAZKIN: avión.

HERTSI: hestu.

HILHOBI: tumba.

HITZARMEN: akordio.

IRUZKIN: comentario.

ISTRIPU: accidente.

IZPI: rayo, brizna.

KARTVELOLOGO: Georgiera eta beronen antzeko kaukasiar hizkuntzak estudiatzen dituen.

LAUPABOST: lau edo bost.

LEHER(TU): eztanda egin, explotar, -ado.

MEHATXA(TU): amenazar, -ado.

MEHATXU: amenaza.

MOETA: mota, mueta, klase.

ORO: guztia, dena.

PETROLIUNTZI: barco petrolero.

SAKARTVELO: Georgiaren izena, georgieraz.

SOLASKIDE: interlocutor.

TINKO: sendo, gogor.

UHN: onda, olatu.

ULTRAMORE: ultravioleta.

A CRUÑA: La Coruña, galegoz.

AKADEMIKEDE: académico.

ALOKAIRU: salario.

BATZORDE: komisio.

BELTZARAN: moreno.

BERRAIPA(TU): volver a citar, -uelto.

BIZITEGI: vivero.

DAKUSKIDE: ikusten ditu, gure ustez.

DARAMATZA: eramaten ditu.

DEUSEZTA(TU): ezerez(tu), birrin(du).

DOHAINIK: dubarik, diru gabarik.


LARRESORO

EUSKARA BATUA

ZERTAN DEN

JAKIN

BIGARREN EDIZIOA



Zertarako da liburu hau?

- Euskararen batasuna egiteko: horrexetarako da gaurko liburu berri hau. Izan ere, bertan jasotzen dira hizkuntzaren batasunerako orain arte Euskaltzaindiak emandako arau eta erregelak.
- Euskaltzaindiaren gidaritzapean bakarrik egin ahal izango da batasun hori: Elkargo horren lana jasotzen da liburu honetan.
- 1968.ean hasirik, bide luzea egin du batasunak; baina lanak sakabanaturik zeuden, eta liburu honetan guztiok batera ematen dira.

Zer ematen du liburuak?

- Lehenik, batasunaren historia labur bat dator, eta ondoren Mitxelenak Arantzazuko Bilerari aurkeztatu zion txostena.
- Baina txosten horretako puntuei buruz erabaki asko hartu ditu Euskaltzaindiak, eta hau ere jasotzen dira puntuz puntu ordenatuta: ezkerreko horrialdeetan Mitxelenarena, eta eskuinekoan —parez pare eta puntuz puntu— geroztik hartutako erabakiak.
- Deklinabide batua dator, laburki, kolore guztietan emana.
- Liburuaren berritasunik jakingarriena **aditz batua** da, edizio ofizialaren ondoren, hemen agertzen baita lehenbadizikoz, gramatika erara emanik.
- Aditz batuaren ikaslana erraztu nahirik, lau koloretan eman da.
- Eranskin bezala datoz, askotan beharko ditugun pertsona izenak eta herri izenak (azken zerrenda hau oraindik ofizialki onhartu gabea), eta batasunaren hiztegia.

Salneurriak

300 pezeta liburudendetan.

%, 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak


JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.

JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena
Kalea Tel.
Herria Probintzia



GURUTZEGRAMA



LUZETARA:

1: Kontsonantea. - 2: Gai bihurtu. - 3: Kontsonantea. Hunki (tu). Kontsonantea. - 4: Itxura txarrekoa (artikuluarekin). - 5: Artirinez egin ogi zabala (alderantziz). Alegera (alderantziz). - 6: Zeru garbia (alderantziz). - 7: Bokala. Zapo. Kontsonantea. - 8: Akaso. - 9: Kontsonantea. - 10: Bokala. - 11: Metal zuri baliotsua.

GOITIK BEHERA:

1: Bokala. - 2: Lore urdin eta zuri bat (artikuluarekin). - 3: Kontsonantea. Zenbakia (alderantziz). Bokala. Kontsonantea. - 4: Gar handikoa (alderantziz eta artikuluarekin). Bokala. - 5: Lehor. Hilabete bat. - 6: Tisisa duena (artikuluarekin). Bokala. - 7: Bokala. Putrea (alderantziz). Kontsonantea. Kontsonantea. - 8: Zeregin atsegina, olgeta (alderantziz). - 9: Bokala.



BANCO DE VIZCAYA
Beronen urkoena dagona belt
LEKEITIO - San Kristobal zelaien, 3 - Unibertsitate 8

Ez zaigu falta, zoritxarrez, geure sail honetarako materialerik. Irakurleek izugarritzko paper eta idazki pilak bidaltzen dizkigute eta ez da erraz izanen, egunen batez horrialde oso bat horretarako uzten ez baldin badugu behintzat, guztiak argitaratzea.

Gaurkoan, beste askoren artean aterata, Bizkaiko Ea herriko jaialdi baterako kartela ematen dugu argi-

tara. Irakurleak ikusiko dituen beste aldrebeskeria askoren artean, horietako dago herriaren izena hirur modu ezberdinez idatzita: Ea. la. le. Eus. kalkien aberastasunak nonbait. Mili gaiztoek esan digutenez, heziketa abade eta maistra nazionalaren artean egin dute arte lan hori. Holaxe baliz bada, beraz, urrezko astabelarri bidaltzen diegu bihotz bihotzez Amen.

EUSKAL FRUITU BAT

EUSKAL HERRIKO eskualde guztietako lagunez osatua. Pedagogia, linguistika eta zientzi arlo ezberdinetan ongi jantzita dagoen gazte talde teknikoa.

FRUITU BAT, bai, eta jadanik heldua. Izerdi artean eta neke askoren ondoan lortu duguna.

HORIXE DA IKER, Euskal Herriaren onerako pentsatu, mamitu eta buruturiko erakunde bat.

Euskal liburuak, pedagogi textuak, haurrentzako ipuinak, euskara ikasteko metodoak, diskoak, kaseteak, posterrak, litografiak... hauk guztiok aurki ditzakezu gudan.

ZATOZ GUREGANA. Euskaldunoi ahal dugun guztian laguntza eskaintzeko gaude. Zeuen zerbitzuan gaituzu IKERren.



**HEZIKETA - ZERBITZU
ETA KULTUR - ERAGINTZA**

Bilbon, Zabalbide, 68-entrio., eskuina.
Tlf.: (94)4331615-4337169



zuk zabaltzeko gaude

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago; guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira